

uk

150. zenbakia / 2008ko otsailaren 4a




Ezagut ezazu zure alderik freskoena




Tortutan, ezagutu nuen nire alderik freskoena, biderria-ala-lehor batetik zutera aler berria, orotik zela iburri nuzuan. Bizirik eta naturalak aurten eragin zuten gure herriak eta gozamenak. Eta orain, herriak beste, beste jarduera berriak, zuzeneko bere eraginak, dituzte, baina Udal Merkatuan eragingoan. Duten inguru natural baten baimenarekin, koloreak, arinak, tratu atseginak eta balaitetako produktuek. 96.000 naturalak eta orotik oso freskoak dirudela."

Eros ezazu zure **Udal Merkatua**



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarminga, Maitane Nerekan, Zuberoa Iturburu
FOTOGRAFIA: Ane Basagoti
TESTUEN ORRAZKETA: Zortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizara Lepoan Euskara Elkarte.
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Unai Basurko.
7. LEHEN ETA ORAIN. Consulado de Bilbao Kalea, Astrabudua.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Jorge Jarel, Leioa.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Krisia gurean.
28. ARGAZKIA. Gortizko erietxea, 1942.
30. BERBETAN. Martxelo Diaz.
34. FOTOGRAFIA. Miguel Tejero.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Zinegoak Uribe Kostan.
43. MUSIKA. Okupando Rom@ taldearen agurra. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Aitorren kondaira euskaraz. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Andrazko arraunlarien liga.
46. ELKARRIZKETA. Ekaitz Agirregotia.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Okela Jatetxea.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Plentziako txikitero taldea, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Naroa Iturri.

Azala: Miguel Tejero



30 Martxelo Diaz

Berbetan

Palestina dugu berri azkenaldian. Martxelo Diaz kazetariak badaki zer bait horri buruz.



11 Jorge Jarel



54 Naroa Iturri



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak

www.renaultleioa.com

Iparagirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA
 Tel.: 94 480 46 02 • Faxe: 94 480 42



Leihatila

> Aiala Elorrieta Agirre

Taxiak

Komunikazioaren garaian bizi omen gara. Klean goazela, bategaz eta besteagaz gurutzatzen gara. Metroan, autobusean, jendez ingurututa goaz. KOSTAa, baina ohitu egin gara jendea eskuko telefonotik berba egiten ikustera. Hasieran, gutxi batzuk ziren leku publikoetan eskukoa zerabiltenak, eta telefonoak jotzean harrিতa begiratzen genion elkarri (dei oso garrantzitsua behar zuen izan).

Teknologia aurrera doa, eta geroz eta gehiago dira orain, belarrietan aurikularrak jantzi eta bakarizketan baleude bezala, berbetan hasten direnak. Lehendabizikoz metroan gertatu zitzaizkien. Aurrean nuen gizona berbaz ari zen, ozen, begirada galduta. Eskuak ere mugitu egiten zituen hizketaldiagaz batera. Zorotzat hartu nuen, telefonoz ari zela konturatu nintzen arte. Laster taxiek bezala ibili beharko dugu. Argi berdea piztuta *libre* gaudenean eta gorria okupatuta bagaude. Telefonoz urrunekoakaz *komunikatzen* ari garenean, kuriosoki ingurukoakaz *inkomunikatu* egiten gara, isolatu. Eta horretxetarako argi gorriak, sustorik ez hartzeko. Klean norbaitegaz gurutzatzen garenean aurrean duguna dagoen edo ez dagoen jakiteko. Gehiegizko komunikazioak, inkomunikatu egiten gaitu, komunikazioa UKatu. UK aldizkariak 10 urte bete dituen honetan, zutabe honetatik komunikatzeko prest... eta argi berdez.

gu geu**Berrikuntzak UKn**

Ezer baino lehen, urte barri on irakurle! Gabonetako geldialdi luzearen ostean (merezitako oporrak izan ditugu) hemen gaude barriro ere. Zenbaki borobila da esku artean daukazuna, 150.a, alegia. Hori eta 10 urte bete ditugula aprobeztatzuz, zenbait aldaketa praktikan jartzea erabaki genuen. Ikusiko duzunez, barrikuntza txikiak dira, xumeak. Alde batetik, orrialde barriak aurkituko dituzu: “plaza” eta “nire bazter kuttuna”. Lehenengoan, Uribe Kostako hainbat lagun iritziak batuko ditugu; batzuetan zure gustukoak izango dira, beste batzuetan aldiz, ez. Baina hori zeure arazoa da, ez gurea. “Nire bazter kuttuna” atalean, Getxoko bazter mitikoenetako oroitzapen malenkoniatsuak aurkituko dituzu, horregaz batera, leku horien izenen azalpen toponimikoa. Aipatu beharra dago, atal barri hori Getxoko Euskara Zerbitzuko laguntzagaz eroango dugula aurrera. Horrez gain, Xa2 Payaren hamabosteroko ekarpenari (“Uribitakora”) lagun barriak bilatu dizkiogu. Algortako Bertso Eskolako (ALBE) bertsolariak izango dira hemendik aurrera, gure (edo zure) argazkiei doinua eta letra jartzeaz arduratuko direnak. Gustuko izango duzulakoan.

UKko lantaldea**Iritzia**

Urtarrileko Getxo Berri astekarian irakurri ahal izan genuenez, “**Getxotarren %57,8k euskaraz berba egiten du edo ulertzen du**”. Premisa horretatik abiatuta, hitz batzuk eskatu dizkiogu Koldo Iturberi.

Euskara guztiona da

Udalak Getxoko Euskara Biziberritzeko II. Plan Nagusia onartu du. Aurreko planaren epeak bete ostean, hurrengo planaren erronkari ekin beharko diogu. Getxo aspaldian dabil euskararen normalizazio beharretan murgilduta, Getxo aipatzen

«**Batez ere, herriko eragileak, herritarrak eta euskararen normalizazioan egunero dabilzanen alde ari naiz**»

dudanean ez da bakarrik Udalaren lana goraiatu behar, batez ere herriko eragileak, herritarrak eta euskararen normalizazioan egunero dabilzanen alde ari naiz. Administrazioak bere tekniko eta bitartekoakaz neurriak eta baliabideak ipin ditzake martxan, baina osotasunean euskararen aldeko bultzatzailearen multzoak ez badu laguntzen jai daukagu. Hala izan da azken urteotan, euskarak aurrera egin badu, guztion lana izan da eta guztion emaitza da.

Orain beste plan bati heldu beharko

diogu, bi dira erronka nagusienak; etorkinen euskalduntzea eta erabileraren sustapena. Hainbat partaide izan ditu egitasmo barri honek, ekarpenak era guztietakoak izan dira; azkenean 10 ardatz dauzkagu. Baina plana ez da idatzita dagoen harrizko testua, tresna dinamikoa izan behar du, aldaketak jaso eta etengabe errealitatea islatuko duen proiektua.


Baina ibilbide honek ere, itzalak izan eta izango ditu. Politikan adostasuna ez da izan elementu honen oinarria eta barriz bere, euskara etsaitzat hartzen dutenek, aipamenik ez, ekarpenik ez, aldeko botoirik eza adierazi dute. Ez dakit zer gehiago azaldu, argitu edo zabaldu daitekeen indar gehiago batzeko, baina egindako lanaren ondorioz ekarpenik ez egiteak (Ezker Batuak salbu), argi uzten du batzuen jarra, euren diskurtsoetan beti bezala euskara=etsaia nahastu da; EBPNk zeozer landu badu, adostasuna eta elkarrizketa izan dira.

Azkenean Osoko Bilkurak ez du aukerarik izan EBPN eztabaidatzeko, beste alderdiek (EBk salbu) ezezko borobila eman dutelako.

“Euskara guztiona da”, leloa zalantzatan jarri da, eta nire galdera honakoa da: nik euskara gaztelania beste maite dut, eta zuk? Baina lana aurrera doa, orain neurriak martxan ipini behar dira; administrazioan euskara lan-tresna bihurtu, erabiltzeko, ahalegin eta neurriak abian ipini eta horretarako Udalaren bitartekoak lagun izango ditu Getxoko herriak.

Euskara Zerbitzuan, euskara teknika-riengandik, eta gobernu talde honen gogotik eta ekimenetik ez da euskara batere alduko; geure seme-alaba bietatik (euskara eta gaztelania), txikiena euskara baita eta maitasun bera izanda bie, txikienari, ahulenari zor diogulako babesik handiena.

Koldo Iturbe (Getxoko Kultura Zinegotzia)



GETXOKO KEJOL-KAIA, URTARRILAREN 17/AN

Ulisesen etorrera/ Kostata, baina heldu zaigu Unai Basurko Euskal Herra, Getxora. Urtarrilaren 17an izan zen, hiru hilabete itsasoan igaro ostean. Vendée Globe lasterketan parte hartu du portugalearrak, lasterketa latza. Orain hile bi utzi behar izan zuen, ontzia matxuratu zitzaioela eta. Beste 30 partaidetatik 17k ere utzi behar izan dute lasterketa. Basurkok berak poza eta tristura sumatzen ditu; poza gurera itzultzeagatik, eta tristura, munduari itzulua amaitu barik bueltatu gura ez zuelako. Emaitzak emaitza, etxeok harrera beroa eskaini diote. ○ / Argazkia: **Rafa Aspiunza**

euskaraz bizi
nahi dugunon
herrira

ongi
etorri

12. Korrika 2011
Tolosa - Gasteiz 20

æek

izan zaitez korrika laguntzailea

12 euroren truke,
garrantzitsuena lortu duzu:

KORRIKA LAGUNTZAILEA izatea.

Honez gain pina eskuratuko duzu eta,
eskaintza orria betez gero, txartelak
ematen dizkizun abantailak ere bai.

www.korrika.org

ongi
etorri



Iraganez doa denbora* beti / ASTRABUDUA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > eskaparartetik harago

2008ko abendua, Zuricalday gozotegia

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Ane Basagoiti**


* Doinua: Droga maltzurak

Kalean zehar goazelarik
hurbil denda-eremua,
albo batera begiratu ta
irensten dugu amua,
hortik aurrera mota bikoia
da gure egitamua,
segun norbere frenua:
gure dirua alper-alperrik
gastatzearen mamua.

"Gutizia bat izan dadila"
"Hau eta hauxe bakarrik"
"Hamar pijama baino ez dauzkat,
hiru zahartu samarrik..."
Nahi dugunari ez zaio falta
luxu-distira ederrik,
xingolarik ez glamourrik,
sari, orde, premia baino
erosten dugu alperrik.

Eskertzen di(n)at fidelotasuna
ene zaletu maitea
orrien beste aldetik ondo
egin dunk hire parte.
Nahiz orain arte gozatu soilik
bertso eskaparatea
Xa2ren alez betea
komeniko zaink denda barruko
denen berri izatea.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai iezaguzu atal honetan agertzea nahi zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

dantzaldi ibiltaria > otsailean eta martxoan etorriko da Uribe Kostara

Aiko taldeko lagunak

Euskal folklorea berreskuratu eta suspertzeko asmoz, *Dantzaldi Ibiltaria* egitasmoa ipini du martxan *Aiko* taldeak. Lehen edizio honetan, ordu biko dantza tailerrak emango dituzte Bizkaiko txoko ezberdinetan. Parte hartzaileei, dantzan ikasteko oinarritzko ezagutza eskainiko zaie; dantzatzeko modu tradizionala berreskuratzeko espazio barriak sortu gura dituzte. Uribe Kostan, Erandio (otsailak 19), Getxo (martxoak 5) eta Plentzia (martxoak 12) bisitatuko dituzte. Ikastaroak doakoak dira, baina beharrezkoa da izena aurrez ematea, 646 336 147 telefonora deituta edo www.aikotaldea.com web orriko inskripzio orria beteta. Izena ematen dutenei, kamiseta bat eta dantza praktika dezaten CD bat oparituko diete. Honez gain, ikastaro trinkoa antolatu dute Durangoko Kafe Antzokian, eta martxotik aurrera, hilero zapatu batez, erromeria herrikoia. ○

mankomunitatea > *Enplegu Gunea* ekimena martxan ipini duteMankomunitatea osatzen duten zazpi herrietan egokitu dituzte *Enplegu Guneak*

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak Uribe Kostako Behargintzagaz elkarlanean, *Enplegu Gunea* ekimena ipini zuen martxan urtarrilean. Honen bidez, lan eskaintza eta aukerei buruz informazioa lortzeko bideak erraztu gura dituzte. Egokitutako guneetara hurbiltzen direnek, lan eskaintzetan alta emateko aukera ere izango dute. Barrikako eta Lemoizko Udaletxeetan, Berangoko eta Urdulizko Kultur Etxeetan, Gornizko Hiritarrentzako Arreta Bulegoan eta Plentziako eta Sopolako Gazte Bulegoetan eskatu ahal izango da informazioa. Bertako langileei eskatu ahal izango zaie, ohiko ordutegian; izan ere, Behargintza informazioa eguneratzeaz eta aipatutako zazpi lekuetara bidaltzeaz arduratuko da, eta harremanetan egongo da bertako langileakaz. ○

saiaz getaria



HOTELA

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



..harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

bisita > Iberre Institutuko lagunak UK ezagutzera hurbildu dira



Sopelako Iberre Institutuko DBH 1 mailako lagunak, UK aldizkaria ezagutzera hurbildu ziren urtarrean. Institutuak Urtxintxa Eskolagaz elkarlanean egiten duen *Murgiltze Astearen* ekimenetako bat izan zen bisita; Koska Irratian eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen ere egon ziren. Lau egunetan zehar, euskarak Uribe Kostan bizi duen egoera aztertzen, eta horretan norberak betetzen duen paperaren inguruan hausnartzen egon ziren Iberreko gazteak. Horretarako, eskualdeko komunikabide euskaldunei bisita egiteaz gain, kale behaketa eta inkesta, ikus-entzunezkoa materialaren azterketa, jolasak, antzerkiak eta beste hainbat teknika erabili zituzten. Gurean, aldizkaria zelan egiten den azaldu genien: informazioa eskuratzeko bideak, elkarrizketak, gaien aukeraketa, erredakzio lana, maketazioa, banaketa, publizitatea, tirada... Adi-adi entzun zituzten gure azalpenak, eta ondoren, galdera mordoa egin ziguten. ○



Iberre Insitutuko DBH 1eko gazteak



"Herritarrak eta ni neu dibertitzea baino ez dut gura"

Jorge Jarel > *El faro de Leioa* argitalpen klandestinoko egilea

Argitalpen klandestinoa, aldizkaria, fanzinea... modu askotara deitu izan diote; baina, ezin uka daiteke, meritua daukala pertsona bakarraren esfortzuagaz aurrera ateratzen den argitalpena kaleratzea. Jorge Jarel gazte leioztarrak, orain lau urte ipini zuen martxan *El faro de Leioa*. Tabernetan, liburutegian eta leku publikoetan aurki daiteke. Maiztasun zehatzik barik, batzuetan besteetan baino kalitate handiagoz, baina aurrera egitea lortu du. Herriko zine forumean bururatu zitzaion hastea: *"Zine zalea naiz; Leioako zine-forumeko langileei proposatu nien argitalpena egitea. Ezetz esan zidaten. Orduan bakarrik egitea erabaki nuen; azken finean, ez nuen inoren laguntzarik behar"*. Zinea da argitalpenaren ardatza, baina umorea, lagunaren kolaborazioak eta beste hainbat gauza ere aurki daiteke: *"Gaiak umorez lantzen saiatzen naiz. Herritarrak eta ni neu dibertitzea baino ez dut gura; doako aldizkaria da eta ez dut inongo irabazirik lortu gura"*. Askok zorrotzat jo izan dute horrelako zerbait egiteagatik: *"Nire izaeragaz bat doan argitalpena da. Ni horrelakoa naiz; zaila egiten zait gauzak serio hartzea. Kontu aspergarrienari ere umore puntua bilatzen diot"*. Beste batzuek aldiz, ideiak ematen dizkiote: *"Ingurukoaren parte hartzea bilatzen dut"*. ○ Argazkia: **Ane Basagoiti** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografía**
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Karteak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
- ermarkaketak •



Gobernu Batzordeak onartu du Euskara Biziberritzeko Getxoko II. Plan Nagusia iragan abenduan onartu zen; 2011ra bitartean bete asmo dituzten 10 ardatz nagusik eta 244 ekintza zehatzek osatzen dute

UK 132. zenbakian, otsailean, eman genuen Euskara Biziberritzeko Getxoko II. Plan Nagusiaren (EBPN) barri, eta orduan ekarpenak egiteko aste biko epea zabaldu zuten. Ordutik egitasmoa Udaltzara eroatekotan ibili ei dira, ostera, azkenean, gutxiengoan dagoen Tokiko Gobernu Batzordeak bakarka onartu behar izan du ekimena, abenduaren amaieran.

Getxoko EBPN 2008-2011 bitartean gauzatzeko (2008 amaieran onartu bada ere) 10 ardatz nagusik eta 244 ekintza zehatzek osatzen dute. Euskara zinegotzi Koldo Iturbek azaldu duenez 10 ardatz nagusiak hurrengoak dira: "ezagutzatik erabilera pasatzea, eskolaren lana osatzea, familia bidezko transmisioa sustatzea, ikasleek euskara erabiltzea, etorkinak euskarara erakartzea; Getxoko udalean ere euskaraz egitea, Getxoko euskara sustatzea, erabilera areagotzea gizartearen esparru guztietan; Komunikabideetan euskararen presentzia areagotzea, baita Getxoko enpresetan euskararen erabilera sustatzea ere izango dira", hori lortzeko asmoz, 245 ekintza zehatz inguru aurreikusi dituzte.

I. EBPN gauzatzeko epea amaitu zenean, 2007an, Euskara Zerbitzuak egindako azterketaren arabera udalerrian herritarren %23,2 euskaldunak dira eta euskaraz berba egiten dute; %34,6k euskara ulertzen dute, baina ez dute euskaraz berba egiten, beraz, hortik ondorioztatu dute getxoztarren %57,8 euskalduna



II. Planaren helburu estrategikoetako bat etorkinak euskarara hurbiltzea da

edota ia euskalduna dela, eta "Getxon euskara hitz egin edo ulertzen duten pertsonen portzentaia, ezer ulertzen ez duenarena baino handiagoa" dela.

Hezkuntza arloan, 3 urteko umeen matrikulazioari dagokionez, azken 10

«Helburu batzuk: etorkinak euskarara hurreratzeko sustatzea eta udalean euskaraz komunikazio tresna izatea»

urteetan A ereduak 21 puntu egin du behera; B ereduak 3 eta bitartean, D ereduak 24 puntu egin du gora. Lehenengo Hezkuntzan ikasleen %50ek D ereduak ikasten du, azkeneko 10 urteetan D ereduak 12 puntu egin du gora.

II. EBPNren nobedade nagusietakoa kulturantzatasunaren esparruan ekintzak

egitea aurreikusten duela da. Etorkinak getxoztarren %6 dira, 4.900 lagun inguru; eta 10 ikasle etorkinetatik 8k A ereduak ikasten du, 1ek D ereduak. Horregatik II. Planaren helburuetako bat etorkinak euskarara hurbiltzea sustatzea da. Beste helburu aipagarria euskara sustatzeko neurriak Udalean ere barneratu gura izatea da; harrerako eta beharginen komunikazio hizkuntza izateko. PP eta PSE ez ei daude ados, ezen udal-postu barrietarako euskara beharrezko ez izatea eskatu baitute. ○

Datu batzuk

- **%23,2:** euskaldunak
- **%34,6:** euskara ulertu; berba egin ez
- **10 ikasletik 8k** euskaraz ikasten dute
- **10 etorkinetatik** 1ek ikasten du D ereduak

“Wanted” ideia lehiaketan

parte hartzeko aukera dute gazteek hilaren 25era arte



Harremanetarako: Tangora Etxea (Algortako Etorbidea 98); gazteria@getxo.net edota 944 660 353

Getxoko Udaleko Gazteria Zerbitzuak barriro ere antolatu du “Wanted” lehiaketa; lan proiektu barrien bila dabilta beraz. Gazteek sustatutako proiektuetarako ideia lehiaketa hori 18 eta 30 urte bitartekoei zuzenduta dago (gutxienez 3 kidek osatutako taldeak), parte hartzeko epea hilaren 25ean amaituko da. Gazteria arloko arduradun Koldo Iturbe zinegotziak adierazi duenez “proposamenak izan daitezke antzezlan txikiak, performanceak, film laburrak egitea, erakusketak, edozelako lehiaketak antolatzea, web orriak, blogak, aisialdi jarduerak (hala nola ikastaroak eta tailerrak), gizarte arazoetan sentiberatzeko proiektuak, euskararen erabilera sustatzeko proiektuak, hitzaldiak etab.”. Proiektuak, hein handiengan, Getxon burutzekoa izan beharko du (ez da onartuko oso-oso-

rik Getxotik kanpo burutzekoa den proiekturik). Edozelan ere, behin Getxon burutzeko gero, proiektuak beste edozein lekutara eroan daitezke. Talde bakoitzak, gehienez, hiru proiektu aurkeztu ahal izango ditu, desberdinak ala proiektu beraren hainbat aldaera izan daitezke. Interesa daukatenek hurrengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte (azpian agertzen den webguneak eskura daitezkeenak): proposamenaren barri ematen duen gidoitxo bat, eskaera orria eta aitopien orria. Horiek Herritarren Arretarako Bulegoetan, edo Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkez daitezke. Diru-sariak 500 eta 8.000 euro bitartekoak izan daitezke, eta bestelako sariak ere banatuko dituzte. ○

Informazio gehiago: wanted.getxo.net

san inazio

autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1 • ALGORTA

URA-REN ETA UHOLDEETAKO BATZORDE BEREZIAREN PROPOSAMENAK

Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen URA Agentziak Getxon urrioren arriskuari aurre egiteko lehenengo larrialdi-neurrien proposamenen barri eman du. Horiek gauzatu gero, Neguri-Langile eta Salsidu guneetan uholde arriskua metro bat gutxituko da: urak gainezka egiteko metro bat gehiago igo beharko du. Orain dela gutxi Plan Orokorra, eta horren barruko ekintza zehatzak azaldu dizkiete URAko teknikariek Uholde-etak Batzorde Berezia osatzen duten kideei. Neurrien artean, besteak beste, ondorengoak daude: Leioako Etorbideko, Jolasetako eta Salsiduko zubiak ordezkatzea (7 zubi, pasabide bi); Neguri-Langilen eta Salsidun errearen ubidea zabaltzea; kirol-instalazio batzuk egokitzeta, uholde lautadak berreskuratzea, ur-parkeak sortzea eta Gobelaren ingurumena berreskuratzea. Dana dala, lehen neurri horiek (3 milioi euroko kostua) arazoa ez dutela konponduko onartu badute ere, arinduko dutela diote. Plan Orokorrean aurrekontua 18 milioi eurokoa da; lehen lan horiek udan hasi eta 2010ean amaituko ei dira; eta ekintza guztien lanen iraupena 5 bat urtekoa izatea aurreikusten da. Ostera, Getxoko Uholdeetako Batzorde Bereziak Antigua Golf (Erromo) parean (80 metroko luzeran) Gobela erreka estaltzea, urazpitik joan dadila, proposatu du. Proposamen eztabaida aldi berean dago orain; Batzordea hilaren 5ean batzartuko da barriro ere.

EREAGAKO ERAIKINAREN PROIEKTUA GELDIRIK

Ereagako erabilera anitzeko eraikinaren egitasmoa (botatzea eta barria egiteko prozesua abiaraztea) geldiarazi dute, epe baterako behintzat, Imanol Landak azaldu legez. Prozesu administratiboa aldi batez eteteko erabakia udal talde politikoen artean (proiektuari buruz) eztabaida, elkarriketa eta adostasunerako aukera bideratzeko asmoz hartu dutela dio Landak, baina ez dutela proiektua utziko.

Cristina Ayuso > historialaria

“Nire asmoa garai hartan andrazkoek izan zitzaketen alde danataz berba egitea da”



Cristina Ayuso 33 urteko historialari durangarra

Doktoretzako nahikotasun-ikerketak (oraindik doktoretza titulua lortu ez badu ere) Bizkaiko emakumeak Erdi Aroan gaiaren inguruan egin zuen Cristina Ayuso historialari durangarrak. Getxoko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak antolatutako “Emakumeen ekarpena Getxoko historian” ikerketak bekaren barri izan zuenean, egindako ikerketagaz zerikusia zuela ohartuta, bere burua aurkeztea erabaki zuen. Lana aurtengo abenduan aurkeztu behar du eta 7.000 euroko diru-laguntza jasoko du.

—Mota honetako lehen lana da zuretzat?

—Bizkaiko emakumeena kontuan hartzen ez badugu, bai hau da lehenengoa. “Lehenengo getxotarrak: emakumea Getxoko historian (XIV-XVII mendeen artean)” izeneko proiektua aurkeztu dut, gazteleraz idatziko dudana. Ilusio handia egiten dit lan honek, gaiarekiko motibazio handia daukat, orain arte egindakoa orokorragoa izan da, lan honegatzat tokiko eremuetan barneratuko naiz...

—Zergatik aukeratu duzu bitarte hori?

—XIV. mendean hasia erabaki dut; izan ere, izan ditzakegun gaiaren inguruko lehe-

nengo albisteak, ia hutsalak izanda ere, ordukoak direlako. Garai hartako Getxoko dokumentu oso gutxi daude; horregatik diot ia hutsalak direla, baina lehenengo aztarnak kontuan hartzearen aukeratu dut mende horretatik abiatzea lana. XVII. mendean amaitzea erabaki dut, ordurako informazio eta dokumentazio gehiago, asko, dagoelako. Hala, historia lehenengo arrastoetatik hasi eta dokumentazioa pila-tzen hasten dena arteko bitartea izango dut ikergai. XVIII. mendetik aurrerako zatia aukeratzera errazagoa izango litzateke, dokumentazio handia dagoelako, baina

jatorrirei eutsi nahi nien lehenengo.

—Zein iturri erabiliko dituzu?

—Lehenengo hurbilketa egiten hasi naiz, eta datuak oro har Bizkaiko Aldundiko Artxiboan, Getxoko Artxiboan (baina bertan gutxi, gehiena XVIII. mende osteko delako), Artxibo Historikoan, Eliz Artxiboan etab. bilatu dituz; gehienbat Aldundikotik eta Historikotik jasoko dut informazioa.

—“Izen berezirik” agertu zaizu?

—Momentuz daukadana dagoeneko argitaratuta dauden kontuak dira, nire ikerketatik ondorioztatutak ez daukat momen-

«Emakumea Getxoko historian (XIV-XVII. mendeak) proiektua aurkeztu dut»

tuz ezer barririk. Proiektua prestatzeko Getxori buruz argitaratutako bibliografia begiratzen ibili nintzenean bazegoen zerbait, baina beste historialarien lana da hori... Oro har, daukadan informaziotik andrazko gehienak “anonimoak” dira, horien gaineko lana izango da.

—Zelan egituratuko duzu lana?

—Nire asmoa da emakume “tipo” bakoitzaren ideia batzuk ematea, “tipo” hori hurrengo zentzuan ulertuta, berbarako: andrazko langileena (zertan ziharduten...), elizarekiko zuten harremana, ezkongabeena, ezkonduena, alargunena... Asmoa garai hartan andrazkoek izan zitzaketen alde danataz berba egitea da. Horregatik andra “tipoen”. Momentuz landu dudana informazioa Bizkaikoa izan da, batez ere hiribilduetakoa, esaterako, andrazkoen presentzia Bilbon Erdi Aroan, lan eremuan oso handia zen; hiribildua handiagoa zen, eta aukera gehiago baziren ere, ziur Getxora ere egoera estrapola daitekeela; oraindik kontu zehatzagoak aurkitu behar dituz.

Gizarte Zerbitzuen egoitza

barria zabalduko dute urte amaieran Getxon; bide batez, Nagusien Etxea ere handituko dute



Orduña mendatea kalean, Getxon, lekutuko da egoitza barria

Getxoko Udalak Gizarte Zerbitzuetako bulegoa zabalduko du Orduña mendatea kalean, getxoetar barrientzat Andra Mari dana, zaharrentzat Getxo dana. Gaur egun Foru eta Martikoena (Algorta) kale-etako bulegoetara joan behar izaten dute ingurune horretakoek, eta udaleko datuen arabera bertako 700 bat familia artatzen dituzte Gizarte Zerbitzuek. Urte amaierarako edo bulego barria prest egongo ei da eta 90 metro koadro inguru izango ditu. Itxas Argia elkartearen lokalak erosi zituen Udalak, danatara 280 metro koadroko ingurunea lortu dute. Horietatik, esan legez, 90 metro koadro

Gizarte Zerbitzuen bulegorako erabiliko dituzte, eta gainontzeko 190 metro koadroak Nagusien Etxerako, hala gune hori ere handituko dute. Gizarte Zerbitzuen bulegorako aurrekontua 20.000 eurokoa da, eta bertan bi gizarte laguntzailek eta bi administrazio laguntzailek behar egingo dute. Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzuetarako eskaerak bidertzeaz gainera, bulego barrian bestelako erakundeek ematen dituzten hainbat zerbitzuen eskaerak ere egin ahalgo dira. Bestalde, Urgull kalean (Algorta) zabalduko den egoitza barrirako egitasmoa ere aurten aurkeztuko ei dute. ○

BERBALAGUNEN BIZKAIERA TALDEA

“Getxon be hameko berbe ikisi gure dogu!”, “ikisi eta erabili”, horretan datza Berbalagunen bizkaiera taldea, Bizarra Lepoan euskara alkarteak eta EGIZUK antolatuta duten eta azken horren ardurapean martxan ipini dena. Oraindino ere gura duenak parte har dezake bertan bagilaren (ekainaren) 25era arte martxan egongo da-eta. Eguenetan batzen dira 20:00-21:30 bitartean. Dana dala, talde honek hein batean gainontzeko berbalagun taldeakaz alderatuz desberdintasun batzuk badauzka, berbarako: berbalagunak euskaldun osoak dira, ordu eta erdiz egongo dira, arduradun bat egoten da, talde handitxua da (14 bat lagun, berbalagun taldeetan handiena) eta baldintza garrantzitsu bat bete behar da: bizkaieraz egin behar dala berba.

Harremanetarako: 619 93 55 41

NAZIOARTEKO 175 EGUNKARI IRAKURGAI LIBURUTEGIAN

Hizkuntza ezberdinetan (30 bat hizkuntza guztira) idatzitako 55 herrialdeetako 175 egunkari irakurri ahal dira Getxoko liburutegietan. Udalerriko liburutegi zerbitzuek bat egin dute Eusko Jaurlaritzak, kulturantzatasunaren alde, martxan ipini duen programa horregaz, horrez gainera, Eibar, Ermua, Irun, Zarautz eta Bilboko San Frantziskoko liburutegiek ere eskaintzen dute zerbitzu hori. Egunkariak satelite bidez irakurri ahalgo dira eta egunero bospasei aukeratu eta inprimatuko dituzte.

HAMAIKA TELEBISTA MARTXAN

Lerrook irakurtzerako irakurle, martxan egongo da Hamaika telebista. Jaioberri den telebista “euskara hutsean emititzen da; helburuetako bat euskara sustatzea eta euskal mundua zabaltzea da; besteetan kabida ez duten informazioa jorratzea ere bai”. Hasieran Bilbo Handia inguruan eskainiko dute (TDT; Euskaltel 23. katean), gerora nazio mailakoa izateko helburua du.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Josean Ibarra > Avanzada estaltzearen aldeko plataformako kidea

“Ez gaude ziur egitasmoa gauzatuko duten edo hitzak baino ez ote diren, orain arte gertatu legez”

Avanzada estaltzeko aurreproiektua egin du Aldundiak eta Leioako Udalarari helarazi, hark galdapenak egin ditzan. Auzokideek aspaldi eskatu dute errepidea estaltzeko, baita plataforma eratu ere. Josean Ibarra dute kideetako bat.

—Avanzada estaltzeko aurreproiektua osatu du Aldundiak azkenean, zuen ekimenak zerikusirik izan du?

—Udala ari da mugimenduak egiten eta auzokideen mobilizazioen ondorioz direlakoan gaude. Baina ez gaude ziur helburua beteko duten, hau da, egitasmoa gauzatuko duten edo hitzak baino ez ote diren, orain arte gertatu legez.

—Orain bidali behar omen dizkiote galdapenak Aldundiari eta 2010ean behin betiko egitasmoa onartuko ei dute.

—Dakigun apurraren barri prentsaren bitartez izan dugu, Udalak ez digu ezer esan, sekula ez da gugaz harremanetan ipini. Orain hamar urte ere egitasmo bat onartu zuten, baina ez dute gauzatu.

—Zuek ere galdapenak egiten zabilzate?

—Inondik ere ez. Aurreproiektuari buruzko informazioa eskatu diegu alderdi politikoei, baina batek ere ez digu erantzun. Alkateagaz ere eskatu dugu hitzordua, baina ez dugu



Iparragirre etorbidean bizi da Ibarra, Avanzada errepidearen gainean

erantzunik jaso. Udalak itxieria darabil gai honeguz, ez dugu ulertzen zergatik. Gu ez goaz ezeren aurka egiten, alderantziz; bere garaian eurek onartutakoaren alde goaz, aho batez adostutakoaren alde.

—Egun 300 metro daude estalita, beste 300 estaliko lukete; bi kilometro arte ez dute estaliko, hainbat arrazoi medio: kostu handia, zailtasun teknikoak...

—Guk ez diogu esango Udalarari zer estali edo teknikoki nola egin. Herria nola dagoen

aztertze eskatzen diogu, asko hasi da, asko Avanzada inguruan. Ahalik eta tarte handiena estaltzea eskatzen diogu. Gure iritzia kontuan hartzeko ere eskatzen diogu, 2.000 lagunek sinatu dugu estaltzearen alde, eta ez badute estaliko, zergatik azal diezagutela, agian uler dezakegu. Hitz egitea da kontua, eta ez soilik esatea ezin egin daitekeela. Harresi arkitektonikoa da Avanzada, herria erdibitzen du, herri erabilpenerako berreskuratu beharko litzateke espazio hori. ○

Kiroldegi barriak jasoko du

aurrekontuen **diru-partida garrantzitsua, Udalaren zein Espainiaren** eskutik



Pinosolo basoan egingo dute kiroldegi berria

Inbertsio handia egingo du Udalak kiroldegia eraikitzeko. Abenduaren amaieran onartu zituzten aurrekontuak eta 36,7 milioi eurotatik 1,6 bideratuko dituzte Pinosoloko kiroldegira. Espainiako gobernuaren diru-partidaren erdia ere kiroldegian inbertituko du Udalak, hau da, 2,7 milioi euro.

Kanpokaldean eta estali barik edukiko ditu hiru igerileku, sakonera gutxikoa, solariuma, tenis eta padel zelaiak eta lasterka egiteko zirkuitua. Kafetegia ere izango du eraikin nagusian.

Esan bezala, 36,7 milioi eurokoa da Udalaren aurrekontua, iaz baino %4,3 gutxiago. Diru gehien jasoko dute herri babesak (%18,6), Gizartekintzak

(%11,8), eta Hezkuntza eta Euskara, zein Prestakuntza eta Enplegua arloek (%8,3).

Bestalde, irisgarritasun hobekuntzak egiteko 1.400.000 euro bideratuko du Udalak, San Bartolomerako 1.200.000 euro; bide publikoetarako 850.000 euro eta Ondiz Dorrea berreskuratzeko Enplegu tailerarentzako 200.000 euro. Pinuetako Plan Berezian 1.476.000 euro inbertituko du eta 600.000 euro Gaztelekuan.

Diru horretaz gainera, Soinu Atadia Fundazioa (1.957.669 euro), Euskaltegia (1.196.948,98 euro), eta Leioa Kirolak Udal Elkarte (38.500 euro) erakunde autonomoen aurrekontuak ere onartu zituzten abenduko Osoko Bilkuran. ○

LEIOANDIN ERAIKITZEKO LANAK 2010 HASIERAN ABIATU GURA DITUZTE

Datorren urte hasieran ekingo diete Leioandi eremua urbanizatzeko lanei, Udalak jakinarazi duenez. Herriko erdigunetik unibertsitatera doan eremuan eraiki gura dituzte 623 etxebizitza, horietatik 405 babes ofizialekoak (101 inguru alokairukoak) eta 218 libreak. Udaletik jakinarazi dutenez, “Udalak lurzorua jabeakaz hitzartuko du lursailak lagatzea eta Eusko Jaurlaritzari lagako dizkio. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak bere gain hartuko ditu eta urbanizatzeko karga guztiak eta babespeko etxebizitzak eraiki eta urbanizazio lanak burutuko ditu”. Etxebizitza Sailak 58,3 milioi eurotik gora inbertituko du.

ETXEKO OLIOA BATZEN DABILTZA URTARRILETIK

Etxeko olio batzeko sistema barria abiatu du Udalak urtarrean. “Herriaren garapen jasagarria eta berziklapenari bultzapena eman” gura die Udalak. Olioaren berziklapena erosoagoa izango ei da, orain artekoagaz alderatuta. Ontziek 24 orduko zerbitzua eskainiko dute kalean eta zortzi gunetan kokatu dituzte: Ikea Barri plaza, Artaza Kalea, Artazagane, Pinueta, Lamiako, Txorierrri, Iturribide eta Ikeako izkina eta Kandelazubietan. Plastikozko botila edo tetra-brika erabiltzea gomendatu dute, eta olio behin hoztu denean sartzea horien barnean.

ONDIZKO DORRETXEAREN BERRESKURATUKO DUTE ENPLEGU TAILERREKOEK

Ondizko dorretxea konpontzeari ekin diote Enplegu Tailerreko ikasleek, Kortesenabarri baserriaren barrizketagaz amaitu ondoren. Guztira 24 lagun arituko dira beharrez, multzo bitan banatuta. Batetik, hargin eta igeltsero lanak egingo dituzte 14 lagunek. Bestetik, arotzen tailerlean parte hartuko dute beste 10 langilek.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

[erandio]

Ricardo Cantera > bateria-jotzailea

“Hiru disko grabatu ditut, ez dira komertzialak, baina oso gustuko ditut, prozesu oso sortzailea delako”

Altzagako Musika Eskolan aukera dago bateria jotzen ikasteko, ikasketa araututik kanpo. Ricardo Cantera goi mailako perkusio irakaslearen eskutik. Astrabuduan eman barri du masterclass bat.

—Masterclass bat eman duzu bigarren Astrabuduan, zer irakatsi duzu?

—Hainbat abesti jo ohi dut horrelakoetan. Aldez aurretik programaturako sekuentzien gainean sartzen dut nik bateria, hau da, sekuentzien hutsuneak betetzen saiatzen naiz, kaskoak ipintzen ditut sekuentziak entzuteko. Hutsune horiek betetzeko zeintzuk aukera dauden azaltzen diet entzuleei. Erabili ditudan sekuentziak funkyan eta jazzean oinarritzen dira batez ere. Badaukat beste sekuentzia bat, hainbat konpas nahasten ditu, baina pulstu bera daukate. Oso polita da.

—Jendeak asko parte hartzen du?

—Gehienak ikasleak dira eta guztiok eza gutzen dugu elkar. Galderak egin eta gauzak azaltzeko eskatzen didate. Nik gidoia eroan ohi dut, baina gero oso irekia da, jendeak arreta jartzen diolako nik garrantziarik eman ez diodan zerbaiti, adibidez.

—Zuk bateria irakasten duzu Erandioko Musika Eskolan, hori duzu ogibide.

—Bai, taldean ere jotzen irakasten dut, beste hainbat instrumentugaz batera. Oso gustu-



Erandioko Musika Eskolan irakasten du bateria Canterak

ko dut, nik ere urte asko jo baitut taldean. Denbora asko behar da, prestaketa behar duelako, baina oso ondo dago eta asko ikasten da, besteei ere entzun behar diezu, zurea egiteaz gainera.

—Taldea askogaz ibili zara, ezagunena agian Fito & Fitipaldis?

—Bigarren diskoaren biran ibili nintzen eurekaz. Beste gauza asko ere egin dut, baina ez dira entzutetsuak. Hiru disko argitaratu ditut. Bi egin ditut teklista eta bajista bantzuek, *Via Libre* izena ipini genion hiru-

koteari. Ez dira abesti komertzialak. Beste bat Carlos Creatorregaz egin nuen, bera gitarra jotzen. Bion arteko *majarada* bat da. Lanok ez dira entzutetsuak, baina gustuko dut horrelako kontuak egitea, prozesua guztiz sortzailea da-eta. Orkestetan ere asko jo dut, eta ikasleei ere gomendatzen diet, denetarik eta ordu asko jarraian jotzen delako bertan, eskola ona da. Dana dala, orain aurrez grabatuta eroaten du askok bateria, programatuta, zuzenean jo beharrean, eta lan gutxiago dago esparru horretan. ○

Hirigintzan hobekuntzak

egingo dituzte **Axpeko erriberako horniketa sarean** eta **Goikoako bide-sarean**



Jose Luis Goioaga kaletik Axpeko Erriberara doan tartean hobetuko dute horniketa sarea

Funtzionamendu hidraulikoa hobetzeko helburuagaz barrutiko dute Axpeko Erriberako eta Jose Luis Goioaga kaleko horniketa sarea, ia kilometro biko tartea, fase bitan. Lehenengorako diru-partida eman dute dagoeneko, 212.684 euro.

Zehazki, 25 zentimetroko diametroa daukan tuberia zaharra barrutiko dute, herriko banaketa arteria nagusienetakoa. Itxiera balbulak ere barrutiko dituzte. Izan ere, iragazgaitasunari eragiten diote ixteko arazoek, eta ur-emarian galerak sortzen dituzte.

Baina Axpekoaz gainera, egingo dute beste hobekuntzarik herrian. Goikoako Andra Mari elizaren ingurua urbanizatu eta oinezkoentzako, zein ibilgailuentzako bide-

sarea berrantolatuko duten egitasmoa esleitu barri du Udalak. Biribilgune bi eraikiko dituzte auzoko sarrera-irteerak arautzeko, hori da proiektuaren nobedade nagusia. Biribilgune biokaz oinezkoen eta ibilgailuen komunikazio sarearen arazoei irtenbidea eman gura die Udalak.

Andra Mariko elizaren inguruari hirigune itxura handiagoa ematea izan dute irizpide nagusi, auzoko urbanizazioan aldaketa proposatzeko garaian. Udaletik adierazi dutenez, “*ibilgailuen nagusitasunari barik, irisgarritasunari eta oinezkoen joan-etorriari lehenetsutakoa eman*” gura diete. Horretarako 785.254 euro inbertituko dute. Hobekuntza lanek bost hilabete inguru iraungo dute. ○

DANTZA GARAIKIDEA LUTXANAN

Otsailean aukera egongo da dantza garaikidea ikasi edo hobetzeko, Lutxanako eskoletan. Tirante Plataformak antolatuta du ikastaroa eta Nuria Perez kataluniarrak emango du. Hilaren 18an hastapen maila emango du, eta 20an, maila ertaina.

Informazio gehiago:
620 176 174 (Nuria) edo
688 618 636 (Tirante Plataforma)

HAINBAT FABRIKA ERAITSIKO DITUZTE

Playabari eta Kösler Iberica lantegi zaharrea industriagunea eta etxebizitzak eraikiko dituzte. Playabari lursaila berkalifikatu dute eta egitasmoa onartu bezain laster, eraikitzen hasiko dira industriagune barria. Kösler dagoen gunean, barriz, 320 etxe egingo dituzte eremua berkalifikatu ondoren. Bestalde, Lutxana auzoko Pinturas Internacionales S.A. fabrika nola eraitsi pentsatzen dabil Udala, galtzeko bidean baitago. Auzokideen aspaldiko eskaera da.

BIDE SEGURTASUNA IRAKATSIKO DUTE ESKOLETAN

Herriko ikasleei bide segurtasuna irakasteko materiala erosi du Udalak, Aste Santuaren ondoren egingo diete ikastaroak. Momentuz, 9 eta 12 urte arteko umeek jasoko dituzte, eskolaz kanpo. Bizikletak, konoak, semaforoak edota seinaleak erosi dituzte 33.000 euroren truke.

EUSKADI SARIA GOIERRI SOKATIRA TALDEARI

Kiroletako Euskadi Saria eman diote Goierri Sokatira Taldeari. Abadiñoako eta Bidaiotzeko (Gasteiz) sokatira taldeek ere eskuratu dute saria. Goierriko eta Abadiñoako gizon taldeek eta Bidaiotzeko emakumeen taldeak irabazi zuten iaz munduko txapelketa.



GORLIZ IRRATIA
Urte Kostatua Irratia 107.9 FM
www.gorlizirratia.com



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **902 54 08 54**



www.arlan.biz

MAITASUN GUTUNEN ETA EMAKUMEENTZAKO LITERATURA LEHIAKETAK

Maite Maitea maitasun gutunen bosgarren lehiaketa antolatu du Udalak. Euskaraz edo gazteleraz izan daitezke, maitasuna edo maitasun ezari buruzkoak eta benetako edo asmatutako pertsona bati zuzenduak. Gazteentzako maila bi eta nagusientzako beste bi daude. Ezusteko oparia eskuratuko dute gazte mailako irabazleek, eta bi lagunentzako afaria nagusiek. Otsailaren 10a baino lehen aurkeztu behar dira lanak Hall Kulturalen edo Turismo Bulegoan. Bestalde, poesia eta ipuinen lehiaketak antolatu ditu Itzartu emakumeen elkarteak. Hamazortzi urtetik gorako emakumeek parte har dezakete. Euskarazko eta gaztelerazko mailak daude, hiruna sari emango dituzte; 300, 200 eta 100 eurokoak. Itzarturen bulegora igorri behar dira lanak, Landa Doktorea kaleko hirugarrenera, otsailaren 20a baino lehen.

SOPESX ZERBITZUKO 2009KO EGUTEGIA

Aurten ere badago aukera Sopesex sexu harretarako zerbitzuan kezkak eta zalantzak argitzeko. Aste birik behin hartuko dute jendea: urtarrilaren 16an eta 30ean, otsailaren 13an eta 27an, martxoaren 13an eta 27an, apirilaren 24an, maiatzaren 15ean eta 29an, ekainaren 12an eta 26an, uztailaren 10ean eta 24an, irailaren 11n eta 25ean, urriaren 9an eta 23an, azaroaren 6an eta 20an, eta abenduaren 4an eta 18an.

GIZA ESKUBIDEEN OMENEZKO KALEA

Herriko kale bati Giza Eskubideak izena jartzea onartu zuten abenduko Osoko Bilkuran. Giza Eskubideen Nazioarteko Deklarazioa 60 urte betetzera doa eta horren harira onartu zuten mozioa. Pertsonen eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak eta kulturalak batzen ditu; 30 artikulua dauzka.

Udalhitz akordioagaz bat egin du Udalak; bertako langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena



Sopelako Udaletxea

Udalhitz 2008-2010 akordioagaz bat egin du Udalak, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeen lan harremanerako protokolo markoa. Beraz, Udaleko langileen lan baldintzak erregulatu ditu hitzarmenak. EUDELek (EAeko Udalen Elkarte) eta CCOO, UGT eta ELA sindikatuek adostu zuten, hiru urterako.

Zehazki, tokiko korporazioen soldata eta lan baldintzak dira arautzen dituenak; Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Udalbatzetako 20.000 langileri eragiten die. Abenduaren 18ko Osoko Bilkuran

onartu zuen Sopelak hitzarmena.

Besteren artean, urtean Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) gehi puntu bat igoko diete soldata esparru publikoko langileei, eta Udaltzainak, C1 taldean sailkatu dituzte.

Bestalde, Espainiaren diru-laguntzagaz zer egin ere erabaki zuen Udalak urtarrilean. Haurreskolan eta Urkoko kiroldegian inbertituko ditu 2.145.000 euro. Haurreskolako lanak egingo dituzte, eta kirolguneko harrera zentroa eta bertako futboleko aldagelak barritu eta handituko dituzte. ○

Maitena Aurrekoetxea > Musika Eskolako zuzendaria

“Orain guztiok batera lan egingo dugu, eta egitasmoak gauzatu ahal izango ditugu”



Maitena Aurrekoetxea, musika eskola barriko gela batean (Enrike Aurrekoetxea 10-12, Plaza Beltza)

Hogei urte darama Sopelan musika irakasten Maitena Aurrekoetxeak. Txistularia da. Musika Eskola barria zabaldu dute, Jauregizar Soinu Alai, eta bera dabil zuzendari. Pozik dago, gogor lan egin dute eta.

—Leku bakarrean eta denak batera egongo dira ikasleak hemendik aurrera.

—Orain arte, eskolarako leku fisikorik ez geneukanez, hainbat lekutan egon gara, urtetik urtera lekuz aldatuz. Hemendik aurrera eraikin hau da musika eskola.

—Aurrerapausu handia, ezta?

—Orain irakasle guztiok batera lan egingo dugu, eta egitasmoak gauzatu ahal izango ditugu. Orain arte ezin genituen burutu, bakoitza leku batean elkarrengaz ez geundenez, ezin genituen landu. Denbora arazoz gainera, goizez eta arratsaldez lan egiten baitugu, koordinazio arazoa gehitu behar zitzaion. Zaila da gauzak koordinatzea bakoitza leku batean. Ikasleen jarraipena egiteko, beraien garapena ezagutzeko, gertu eduki behar dira, osterantzean oso zaila da. Eskaintza ere zabalagoa izango da.

Lengoaia musikala, pianoa, gitarra, zeharkako xirula eta txistua irakatsi dugu orain arte, baina beste instrumentu batzuk irakatsi ahal izango dugu laster, saxofoia, perkusioa...

—Aurten gainera, ikasle asko matrikulatu da, ezta?

—Ikasturte honetan ia berrehun ikasle daukagu. Musika eskoletan aldaketa handia egon daiteke urtetik urtera matrikulazio aldetik. Ikasturte barruan ere badaude aldaketak. Baina aurten kopuru polita daukagu.

«Eraikinak eskakizunak betetzen ditu eskola ofiziala izateko»

—Ez da irakaskuntza ofiziala, baina etorkizunean eman zenezakete?

—Ez da eskola ofiziala, baina irakasle guztiok gara tituludunak eta programa ofizialari jarraitzen diogu. Dena dela, etorkizunean hezkuntza ofizialean sartu gura izanez gero, eraikin honek eskakizunak betetzen ditu. Oso pozik nago. ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

LAIKAK Taberna

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

**LANDAIDA GOIKOAN
KOKATUKO DUTE
KUTSATZEN EZ DUTEN
ENPRESEN GUNEA**

Landaia Goikoa eremuan kokatuko da kutsatzen ez duten enpresak hartuko dituen industrialdea, 75.000 metro koadrokoa. Hori gauzatzeko eremuaren kalifikazioa aldatuko du Udalak, hirigintza antolamendurako plan orokorraren (HAPO), aurrerapen txostenak jasotzen duenez. Ipar Arebeta eta Arene industrialdeen arteko lurra da. Enpresa guneok lotzeko ere balioko du egitasmoak. Uribe Kostako korridoreko irteera erabili beharko dute ibilgailuek industriagune barrira sartzeko, trafiko astuna herrigunetik aldentuz. Gainera, industrialdeen eta Larrabasterrara doan errepidea konpontzeko asmoa ere badaukate.

**ABIAN DIRA KULTUR
ETXEETAKO IKASTAROAK**

Helduentzako hainbat ikastaro egingo dituzte Santa Ana eta Berangoetako Kultur Etxeetan, otsailetik aurrera. Sendabelarrak, txalaparta eta informatika irakatsiko diete berangoztarrei. Otsailaren 6tik martxoaren 30era emango dute sendabelarren ikastaroa. Berangoetan izango da, ostiralero 10:00etatik 13:00etara. Txalaparta larunbatetan egingo dute, otsailaren 7tik maiatzaren 23ra eta 10:00etatik 12:00etara, Santa Anan. Informatika, barriz, otsailaren 2tik 25era gauzatu dute, Santa Anako KZ gunean, astelehenetik ostiralera eta 17:00etatik 19:00etara.

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Kirolari bai! Aitzakiarik ez!
Prest dago ia bidegorria eta Kiroldegiaren
proiekturako diru-partida onartu dute



la kilometro bat izango du bidegorri barriak, Sabino Arana eta Simon Otxandategi kaleen artean

Laster erabili ahalko da bidegorria, hil honetan amaituko ei dituzte lanak Simon Otxandategi eta Sabino Arana kaleen artean. Zehazki, Moreagako bidegurutzearen eta Intxaurraga, zein Kurtzerako saihesbidearen artean, ia kilometro batez ibili ahalko da.

Etorbizunean Kurtzeko bidegorriagaz elkartzeko asmoa daukate, herriaren erdigunea, Getxoko kostaldeagaz lotzeko. Larrabasterran hasten den bidegorriagaz, ordea, ez du bat egingo oraindino; Foru Aldundiarena da errepide hori eta laga diezaion itxaron beharko du Udalak.

Baina badirudi osasuntsu dabilela

Berango, kiroldegia eraikitzeko asmoa baitu Udalak. Proiektua egiteko 1.063.000 euroko partida onartu zuen abenduko Osoko Bilkuran, 2009rako aurrekontuen baitan; inoiz onartu duten aurrekonturik handiena da. Aurreproiektuari ekarpenak egiten dabilta, eta oraindino ez dakite noiz hasiko diren kiroldegia eraikitzen.

Metro geltokia estali eta haren gainean egin gura dute kiroldegia zati bat, eta geltokiaren azpian dagoen aparkalekuan bestea. Igerilekuak, padel zelaiak eta gimnasioak edukiko ditu, besteak beste. Auditoria ere egongo ei da bertan. ○

AIXERROTA BHI
26 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

Juan Manuel Goikoetxea > *Para el recuerdo, Gorliz*

“Bizilagunen eta marinelen bitartez ezagututako istorioak daude oinarrian”



Para el recuerdo, Gorliz liburuaren egilea, Juan Manuel Goikoetxea *Motores*

Gorlizen jaioa, hazia eta hezia da Juan Manuel Goikoetxea; *Motores* goitizenez eza gutzen dute lagunak. Herriko bazterren eta bizilagunen inguruko istorio mordoia eza gutzen du; herri jakintza ezerezean ez galteko, hori batzen ibili da azken urteotan. Horregaz guztiagaz, *Para el recuerdo, Gorliz* liburu osatu du. Gorliztarren pasadizoak umorez kontatu ditu *Motores* jaunak; harrera oso ona izan du liburuak.

—Zer aurkituko dugu liburuan?

—Gorlizko historia, 1299. urtetik 1969. urtera artekoa. Bizilagunen eta marinelen bitartez ezagututako kontuak dira lanaren oinarria; 100 informatzailetik gora izan ditut. 50. hamarkadako gorliztarren bizimodua deskribatzen saiatu naiz: gerra garaiko kontuak, esamoldeak, izenak, ezizenak, ohiturak, etxebizitzak... Garai hartan euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen, hori dela eta, hitz asko ahoskatzen ziren bezala idatzi behar izan ditut.

—Zelan egituratu duzu lana?

—Kapitulutan banatu dut: historia, burutapenak, lanbideak, pertsonaiak... Horietan istorio laburrak kontatzen ditut; bakoitzari ironia eta umore puntua eman diot. Argazkiak ere sartu ditut.

—Nondik sortu zen ideia?

— Herriko kontuak asko interesatu izan zaizkit beti. Jubilatzeaz nengoela, nire emaz-

«Gura duenak, Elkarren eta Etxebarria liburu dendan eros dezake liburu»

teak ezagutzen nituen istorio guztiak idatzi behar nituela esan zidan. Orduan, liburu idaztea erabaki nuen.

—Zelako harrera izan du?

— Orain arte oso harrera ona izan du, nik espero nuena baino askoz hobea. 500 ale egin ditut eta ia amaitu zaizkit. Gura duenak, Elkarren edo Gorlizko Etxebarria liburu dendan eros dezake. ○



TXIBERRI
e d a n t o k i a
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA



URDULIZ

Teléfono: 940 701 120

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

EURODISNEYRA BIDAIA URDULIZTIK

Urdulizko Kultur Etxeak Eurodisneyra bidaia antolatu du Aste Santuko oporretarako. Izena emateko epea zabalik dago, eta gura dutenak Kultur Etxera (Aita Gotzon Kalea 16 bis) hurbildu beharko du. Autobusa apirilaren 9an irtengo da Urduliztik eta 13an etorriko da bueltan. Prezioa, izena ematen duten pertsona kopuruaren eta horien adinaren arabera izango da.

ESPEZIE INBADITZAILAEN TXOSTENA KALERATU DU MANKOMUNITATEAK

Zenbait landare espezie inbaditzailek Uribe Kostan egiten ari diren kaltearen barri emateko txostena kaleratu du Mankomunitateak. Horregaz, herritarrak informatu eta kontzientziatu gura dituzte. Txostena www.uribekosta.org web gunean aurki daiteke; horrez gain, ukbotanico@gmail.com helbidea sortu dute informazio gehiago edo aholkularitza botanikoa behar duenarentzat.

ELIZAKO APARKALEKUA ETA OKENDO AUZOA URBANIZATUKO DITUZTE

Espainiar Estatuko krisiari aurre egiteko diru poltsatik jasotako diruagaz, Okendo auzoa eta eliza ondoko parkina urbanizatu ditu Gorlizko Udalak. Okendo auzoko azpiegitura egoera txarrean dago; horren hobekuntzan 600.000 euro inbertituko dituzte. Elizako parkingerrako aldiz, 300.000 euro behar dira.

PLENTZIA

Arkote Liga San Migelen lehiatuko da osterera ere



600 bazkidetik gora ditu Arkote Arraun Taldeak

Plentziako Arkote Arraun Taldea, goi mailako San Miguel Ligan lehiatuko da aurten ere. 2008ko irailean KAE (Kantauriko Arraun Elkarte) ligara jaitsi bazen ere, onenekaz lehiatuko beharko du 2009an Cabo da Cruzen ukoa dela eta. Azken honek, Galiziako ligan parte hartzeko utzi du TKE (Traineru Kluben Elkarte) liga. Bosgarren urtez jarraian lehiatuko da "Plentzitarra" goi mailako traineruakaz. TKE ligako arautegiaren arabera, "kirol irizpideak" lehenesten dira ordezkioa hautatzerako orduan; Arkote

hirugarren izan zen iraileko kanporaketan. Arautegiko puntu hori joan den abenduan aldatu zuten, ordura arte lurraldetasunak zuten lehentasuna.

1957. urtean jaio zen Arkote Arraun Taldea *Plentziako Arraun Elkartearen* eskutik. Gaur egun, 600 bazkidetik gora eta 90 lizentzia ditu kategoria guztietan, gizon zein emakumezkoen taldeetan. Azken horiek (emakumezkoak), urtarrean aurkeztu zuten Emakumezkoen Traineru Ligan parte hartuko dute seguruenara. ○

Ots. 4 - Ots. 15

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Ramiro Etxebarria.** Erromoko erakustaretoan, otsailaren 14ra arte. Astegunetan, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara; eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.
► **Arte Ederretako ikasleen lanak.** Hilaren 7ra arte, Algortako erakustaretoan, 11:00etatik 13:00etara.

LEIOA

► **Basoaren azala.** Otsailaren 5etik 22ra, Kultur Leioan.

MUSIKA

GETXO

► **Agate Deuna. Otsailaren 4an,** auzoka eta kalez kale, Agate Deunaren omenezko kantak, 18:00etatik 21:00etara. Algortako Geltokia plazan Algorta-Andra Mariko abesbatzen baterako ekitaldia, 20:00etan.

LEIOA

► **Agate Deuna kantu txapelketa.** Otsailaren 4an, kalez kale eta arratsaldean. Sari banaketa: otsailaren 7an, Kultur Leioako Auditoriumen, 12:00etan.
► **Serrando Colina project. Blues-Jazz zirkuitua.** Otsailaren 13an, 22:00etan, Kultur Leioako Ambigu aretoan. 6 euro.

ZINEMA

BERANGO

► **Zinegoak, gay-lesbo-trans zine emanaldia.** Otsailaren 13an, 20:00etan.

LEIOA

► **Zinegoak, gay-lesbo-trans zine emanaldia.** Otsailaren 11n eta 12an,



lazko saririk gabeko Erandioko autorenik onena: Tira, Hugo Tobio Suarez

► Lehiaketa

Erandioko Komiki Lehiaketa abiatu dute

Gazteentzako Komiki Lehiaketa antolatu du Erandioko Gazte Informazio Bulegoak, eta 15 eta 35 urte bitarteko edozein pertsonak parte har dezake, bakarka nahiz taldeka. Gehienez hiru lan aurkez ditzake lagun bakoitzak maila bakoitzeko, zuri-beltzean edo koloretan, euskaraz edo gazteleraz. Gaia librea izango da, baina pertsonaia guztiak sortu beharko ditu egileak originalak behar dute. Aurkezteko garaian, bi sobretan egin beharko da, lanak batean eta egilearen datuak bestean. Gazte Informazio Bulegora eraman daitezke zuzenean, edota postaz bidali, apirilaren 17a baino lehen. Guztira 3.000 euro banatuko dute. Informazio gehiagorako: 94 602 58 91 / gazteinfo@erandioko-udala.net.

• **Non:** Erandioko Gazte Informazio Bulegoan • **Noiz:** Apirilaren 17ra arte

Kultur Leioako Auditoriumen, 20:00etan. Gonbidapenez.

► **Lepel. Haur zinema euskaraz.** Otsailaren 7an eta 8an, Kultur Leioan 17:30ean, 3 euro.

► **Bremengo musikariak (haur antzerkia).** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, 12:30ean gaztelaniaz eta 18:00etan euskaraz, Teatro Paraisoren eskutik, 3'50 euro.

ANTZERKIA

GETXO

► **Kontularien Kluba.** Ipuin-kontalaria izan edo entzun nahi duten nagusiez osatutako saioa. Otsailaren 13an, Algortako Kultur Etxean, 19:00etan. Doan

BESTEAK

URDULIZ

► **Inausketa ikastaroa.** Otsaileko zapatu guztietan, 10:00etatik 14:00etara. Izena eman Mankomunitatean.

BARRIKA

► **Umeskola: "Familia harremanak".** Otsailaren 10ean, martitzena, 10:30etik 12:30era.
► **Ballet eta Kung-Fu.** Otsailaren 14an, 11:00etatik 13:00etara.

BERANGO

► **Sendabelar ikastaroa.** Otsailaren 6tik martxoaren 20ra. Barikuetan, 10:00etatik 13:00etara.
► **Txalaparta ikastaroa.** Otsailaren 7tik maiatzaren 23ra. Zapatuetan, 10:00etatik 12:00etara.
► **Informatika ikastaroa.** Otsailean, astelehenerdik eguaztengera, 17:00etatik 19:00etara.

ERANDIO

► **Dantza espresiboa ikastaroa.** Bekoa ikastetxean, martxoan. Izen-ematea: otsailaren 23ra arte.
► **Aholkularitza sexologikoa.** Otsailaren 13an eta 27an. Drogomenpekotasun gelan.

GETXO

► **ARCO, Nazioarteko Arte Garaikideko Azokara bidaia. Madrilera.** Otsailaren 13tik 15era. Algortako Ecuador bidaia-agentzian eman behar da izena (94 491 18 42), 155 euro.

PLENTZIA

► **Autodefentsa ikastaroa emakumeentzat.** Otsailaren 13an, 17:00etatik 20:00etara, eta otsailaren 14an, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. Goñi Portalen.
► **Sagardotegira irteera.** Goñi Portalek eta Matrako Mendi Taldeak antolatuta. Otsailaren 21ean, 35 euro.

LEIOA

► **Amodiozko Gutun Lehiaketaren sari-banaketa.** Otsailaren 13an, Kultur Leioako Hitzaldi gelan, 20:00etan.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Krisia norena, norentzat?

Hitz potolo bihurtu da, modako gai, krisi ospetsua. Hedabideetan orriak eta minutuak betetzeko aitzakia? Badirudi bogan dagoen kontua baino gehiago dela. Batzuek diotenez, krisiak onak dira, sosegura deitzen dutelako. Bankuek ei dute krisia. Eragina handiagoa ote da?

Argazkiak: **Ane Basagoiti**





Zirko zaldia

Gorlizko erietxea, 1942

Traje zuridun erizain eleganteek Gorlizko erietxeko zelaira atera dituzte gaixoak. Batzuk bankuetan eserita daude, lasai; besteak aldiz, ohetik begiratzen diote espektakulari. Herriko gizon-emakumeak ere hurbildu dira, eguzkiaren berotasunaren bila edo. Bitartean, zaldi gaixoa bueltaka dabil, txakurrak gainean dituela. Leher eginda dago zaldia eta gelditu egingo dela ematen du. Baina, jakadun hezitzailea hurbildu zaio eta ipurdian jo du ustagaz. Horra hor, antzinako denborapasak.

[berbetan]

Palestina gori-gori dabil azken asteotan, eta gertatzen dena hobeto ulertzeko jo dugu Martxelo Diazengana (Donostia, 1971). Askapena taldeko kidea eta Gara egunkariko kazetaria da, mundua sailean. Palestinan egondakoa da, ondo ezagutzen du bizi duten gatazka. Israelek NBEren egoitza bat, ospitale bat eta prentsa bulego bat bonbardatu eta biharamunera egin genuen hizketaldia. Orain 60 urte hasitako gerraren konponbidea urrun bistaratzen du Diazek, liskar latzek egiten ei dute zaila adiskidetzeara.

Martxelo Diaz

Palestinari begira

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Lander F. Arroyabe**

—Hamasek suetena egin ahal izateko baldintzak jakinarazi zituen aurrekoan eta Israelek atzo erantzun behar zuen, baina Nazio Batuen Erakundeko (NBE) eraikin bat eta hedabideen beste bat bonbardatu zituen. Bere jardueran aurrera-pausoa izan da?

—Bai, baina Hamasen baldintzak ez direla berriak. Berak eskatzen du Israelek Gazatik alde egitea, eta Gazak pairatzen duen blokeoa altxatzea eta mugak irekitzea. Hori da Hamasek salatu zuena bere garaian, eta abendua aurreko su-etena apurtzearen arrazoi nagusia. Abenduaren 19an amaitu zen sei hilabeteko su-etena. Hori lortzeko Israelek hartu zuen konpromisoa, blokeoa altxatzeko eta Gaza ez erasotzeko. Baina su-etena apurtu baino aste-bete lehenago 20 palestinari hil zituen, eta sei hilabete horietan blokeoa bere horretan mantendu zuen Gazan. Ondorioz, sendagairik ez dute ospitalean, jakiak oso urria dira, eta laguntza humanitarioa jasotzeko aukera ere zapuztu da. Orain ere, Israelen eraso bortitzaren aurreko egoera bera

dago: Israelek ez ditu onartzen gutxieneko baldintza batzuk Hamasen su-etena lortzeko. Are gehiago, erasoaren intentsitatea handitu du, ospitalea, NBEren bulegoa eta prentsa bulegoa erasotuz eta Hamaseko ministro bat hilez. Interesgarria da NBEren aurka nabarmen egin duela, eta orain egun batzuk laguntza humanitarioa banatzen zuen konboia erasotu zuela. Ondorioz, NBEk laguntza eten zuen. Biak NBE bezala oso ondo zeuden identifikatuta, Israelek sobera zekien ez zirela Hamasenak. Halere, eraso egin zituen, badirudi laguntza humanitarioa zapuztu

“Salatzen dute AEBk Israel babesten duela, baina EBk antzeko jarrera du, ez ditu Israelen sarraskiak salatzen”

nahi duela, egoera latzago bilaka dadin.

—**Ekintzokaz hordagoa botatzen ari zaie Israel nazioarteko erakundeei eta estatuei?**

—Bai, historikoki ere Israelek beti egin du nahi izan duena. Nazioarteko komunitate

tea ez da gai izan egin dituzten sarraskiak gelditzeko. Orain ere nahiko epel egon da. Israelek garbiketa etnikoa egin zuenean 1948an, ia milioi bat errefuxiatu kanporatu zituztenean, Nazio Batuek aldarrikatu zuten errefuxiatuen itzultzeko eskubidea. Baina 60 urte igaro dira, eta ebazpen hori oraindik ez dute bete. 1967an Zisjordia eta Gaza okupatu zituztenean ere, lurrok utzi behar zituela esan zioten Israeli Nazio Batuek, baina 41 urte ondoren ez dute bete. Beraz, Israelek beti egin du nahi izan duena, nahiz eta nazioarteko komunitatea hitzez behintzat horren aurka azaldu.

Gogoratu beharra dago AEBk beti egin duela Israelekin bat, eta horrek balio izan dio Israeli edozer gauza egiteko.

—**Barack Obama AEBtako presidentea berriak ere bat egin du Israelekin.**



—Bai, gainera esanguratsua da teorian sozial-demokrata izanik, Alderdi Demokrataren hautagai atera zenean, lobby sionistaren egoitzara joan zen lehenik eta behin, Washingtonera. AEBen konpromisoa Israelekiko berretsi zien. Are gehiago, nazioartera egin zuen lehen bidaia Israelera izan zen, eta bere gobernu osatzeko lehen izendapena, gabineteko burua edo, sionista deklaratu bat jarri du.

—Beraz, zure ustez, batzuen epeltasunak eta besteen babesak lagundu dio Israeli bere jarrera mantentzen?

—Bai, beti salatzen da AEBen jarrera, Israel babesten duela nazioarteko bileretan eta horregatik Israelek egin dezakeela nahi duena. Baina Europako Batasunak antzeko jarrera dauka, ez dituelako inoiz Israelen sarraskiak salatzen, eta gainera, bere produktua Europar saltzeko akordioa daukate. Israelek onura ekonomiko garrantzitsuak eskuratzen ditu EBtik. Beste elementu bat: herrialde arabiarrek ez dira gai Israeli aurre egiteko. Batzuk AEBen lagunak dira eta gogo handirik ez dute Hamas indartzeko. Banaketa sakona daukate horien artean ere hau dela-eta.

—Zergatik dauka nazioartean horrenbeste babes Israelek?

—Israel mendebaldeko politikaren kuña da, AEB eta EBren aliatua inguru hartan. Horrelakoak esatean anti-semitak esaten digute, baina gogorazi behar da judutarrek eta lobby sionistak AEBen izugarriko boterea daukatela.

—Zer gertatuko da orain?

—Ez dakit, baina palestinarrentzako zabaltzen diren aukera guztiak txarrak dira. Israelek hauteskundeak egingo ditu otsailan, eta inkesten arabera, eskumako alderdi bat nagusituko da. Kontuan izanda, israeldarrek egungo gobernu *biguntzat* dutela, eskuineragoko politika egiten dutenak nagusituz gero, ikusi beharko da zer egiten duten; baina egia esan, nik uste gauza gutxi gehiago egin dezake. Bestalde, palestinarrek badaukate beste arazo bat, beraien arteko banaketa. Orain arte egon dira Hamas

Gazan eta Al Fatah agintzen Zisjordanian. Bien arteko desberdintasun nagusia Fatahk bere garaian erresistentziaren aldeko hautua egin zuela da, baina azkenean daukaten autonomia apurra kudeatzeko alderdi bihurtu da. Ustelkeriaz jota dago gainera, nahiko desprestigiaturik. Negoziazioaren bidea hartu dute azken urteotan, baina beti ere egungo egoera mantentzen duen nego-

“Hamasek irabazi zuenetik ari dira blokeoa pairatzen eta batasun nazionala lortzea ezinbestekoa dute”

ziazioa, eta AEBen begiradapean. Autonomia oso urria lortu dute, Zisjordaniko herrien kontrola bakarrik edukitzea eta gainontzeko lurraldeena Israelek edukitzea, Zisjordanian bitartean kolonizazionistek eraikitzen jarraitzea, banaketaren harresia eraikitzea... Horrek ez du suposatzen ez palestinarren askapenaren bidean aurrerapausoak ematea, ez eta bizi-baldintzetan onurak lortzea. Horren aurrean Hamas dago, alderdi islamista da, suposatzen da islamaren kontzeptzio atzerakoia daramala. Hori beharbada kritikagarria da ezkerreko ikuspegitik, baina egia da Israeli aurre egiten diola, erresistentziaren hautua egin duela. Horregatik ari dira jasotzen Gazan izugarriko errepresioa. Azken asteotan izan da larriena, baina Hamasek boterea eskuratu zuenetik ari dira pairatzen blokeoa. Beraz,

“Konponbide bakarra litzateke estatu laikoa sortzea, biztanle guztiak berberak izango lituzketen estatua”

palestinarrek arerio handia daukate parez-pare eta batasun nazionala lortzea ezinbestekoa dute. Batasun horrek zeozer lortzeko izan beharko luke eta okupatzaileari aurre egiteko, ez negoziaketa faltsuak egiteko. Egoera nahiko ilun ikusten da, egia esan. —Eman dezake azken hilabeteko kontua dela, baina gatazka hori aspaldi hasi zen,

duela 60 urte, eta badago hainbat ideia konponbiderako, ezta?

—Konponbiderako bi proposamen nagusi dago. Lehenengoa, Palestinan bi estatu sortzea, Israel bata eta Estatu Palestinarra bestea. Arazo bat dauka horrek, egungo lurralde banaketarekin Palestina beti egongo bailitzateke Israelen menpe. Izan ere, Gaza lur eremu oso eskasa da, milioi eta

erdi biztanleduna, eta ezingo luke ekonomia garatua sortu, batez ere asko eta asko errefuxiatuak direlako. Israelen kontrolpean egongo lirakeke. Zisjordanian antzekoa litzateke, ematen baitu palestinarren kontrolpean dagoela, baina kolono israeldar pila bat dago bertan. Gainera, hiri batetik bestera joatea ezinezkoa da Israelek kontrolatzen dituen lurretatik igaro gabe. Israelek ere beretzako hartu ditu nekazaritzarako egokiak diren lurak eta ur iturburuak. Beraz, ekonomikoki dependientea litzateke Estatu Palestinarra egungo banaketarekin. Israelek, harresia dela eta, nazioarteko legediaren arabera bereak ez diren lurak bereganatu ditu, banaketa horri begira beharbada.

—Irtentzako lortzeko bigarren aukera litzateke estatu bakarra sortzearena, ezta?

—Bai, estatu laikoa, erlijioak ez luke garrantziarik izango eta biztanle guztiak eskubide berak izango lituzkete bertan. Izan ere, gatazka honen arrazoietako bat Israel estatu sionista dela da, hau da, bazterketan oinarritzen da, eskubide zibil eta politikoak soilik judutarrek dituzte, eta erlijio horretatik kanpo bizi direnek ez dauka-

te eskubiderik. Hori da gatazka osoaren sorburua. Beraz, ezin litzateke horrelako estatua izan, estatu demokratiko bat baizik, biztanle guztiak eskubide berberak edukiko lituzketen estatua. Hori epe laburrera lortzea oso zaila ikusten dut, beharbada belaunaldi bat, bi edo hiru igaro beharko da. Beraien arteko liskarrak oso latzak izan dira eta adiskidetzera ez da izango erraza, ezta samurra ere. Baina nire ustez hori izango da konponbide bakarra, edo epe luzera buruan izan beharko genukeen eszenatokia.

—Nazioartean mobilizazio asko egiten dabilta, zuk zeuk analisi batean ere esan duzu Israel boikotaren bidez isolatu behar dela eta harreman diplomatikoak eten behar dituztela; horrek lagun dezake gatazka konpontzen?

—Baiezkoan gaude. Boikotaz ari garenean,

gogorazi behar dugu ehun talde palestinarrek nazioarteari eskatu dioten borroka moldeak dela. Beraiek Hego-Afrikaren eredu hartzen dute, apartheidaren erregimena zegoen garaikoa, bazterketan oinarritutako eredu zena. Egun Palestinan egoera bera pairatzen dutela deritzote, gutxiengo batek kontrolatzen duela estatua eta gehiengoak ez daukala eskubiderik. Apartheidarekin

“Ekialdeko demokrazia bakarraren irudia eman nahi du Israelek nazioartean, eta hori salatu behar da”

bukatze nazioarteko boikota oso eragin korra izan zen, boikot ekonomikoa izan zen, baita beste alorretan ere, kirolean adibidez. Hego-Afrikak ezin izan zuen nazioarteko lehiaketetan aritu urtetan. Adituek

diotenez, boikotaren ekimena biziki garrantzitsua izan zen apartheidaren erregimenearekin amaitzeko. Gero eta indartsuagoa da Israelen politikaren aurkako ekimen hori. Ekialde hurbileko demokrazia bakarraren irudia eman nahi du nazioartean, eta hori salatu behar da. Adibidez, Euskal Herrira maiz datoz Israelgo saskibaloitaldeak jokatzera; Israelek palestinarren esku-

bideak urratzen dituen bitartean ez duela harrera egokia izango adieraztea biziki inportantea da, eta jarrera honek Israeli min handia egiten dio bere sistema ekonomikoa mantentzeko helburuari. ○



aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digitu).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37



Leku iragankorrak

1959an Oruron, Bolivian, jaio bazen ere, sei hilabete baino ez zuela, Madrilera egin zuen. Margolaria, Madrileko EFTI eskolan hasi zuen argazkigintza-hezkuntza 2005ean. "Lugares de paso" bilduma aurkeztu zuen joan den urteko irailean ospatu zen GETXOPHOTO jaialdiaren II. edizioan. Ezkutuko misterioa duten espazioak erakusten ditu bilduma honek, sortzen duten tentsioak igarkizun baten aztarna somatzen badigu ere, ez digu igartzen uzten. Margolaritza eta argazkigintza adierazteko bideak dira Tejerorentzat.

www.migueltejero.com

Argazkiak: **Miguel Tejero**









I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Zinegoak Uribe Kostan

Gay-lesbo-trans zinemaldiko filmak ikusgai
Getxo, Berango, Leioa eta Erandion



www.zinegoak.com

Bilboko gay-lesbo-trans (GLT) nazioar-teko zinemaldiaren 6. edizioa, Zinegoak 09, urtarrilaren 30ean hasi zen eta hilaren 7ra arte, oraindino ere, film andana ikus-teko aukera dago Capitol zinemetan (3 eta 4 aretoak), Bilborock, Fnac, eta Guggenheimen.

Antolatzaileen esanetan, Zinegoak 09 "orain arte egin den handienetakoa da film, emanaldi areto, sari eta egunen kopuruari begira". Horrez gainera, badu aurtengo jaialdiak beste berezitasunik, izan ere GLT gaikako euskarazko lehenengo film luzea, "Ander" (Roberto Caston) eskaini dute-eta; 59. Berlinale zinemaldi entzutetsuan ere emango den filma. Bestalde, Zinegoak 09 Ohorezko Saria aurten lehenengoz atzerrira joan da, hain zuzen ere nazioartean ezaguna den zine zuzendari, aktore, argazkilaria eta idazle Bruce LaBruce jaso du. Film luze, labur (hainbat euskaldun) eta dokumental andana egon da, eta oraindino ere badaude ikusgai; guztira 111 pelikula eskainiko dira, hamaika hitzaldi, lau jai

(Inauguraziokoa, Zuzendariena, Euskal Egileena eta Itxierakoa), sariak etab.

Bilbora urreratzeko gogo handiegirik ez daukanak ere ez du aitzakiarik, eskualdean ere eskainiko dira-eta Zinegoak 09ko hainbat lan. Berangon hilaren 13an (20:00, Berangoeta kultur etxea) "From Lucas to Luus" eta "Out Late" dokumentalak; Getxon hilaren 12an (20:00-22:00,

«Leioan hilaren 11n eta 12an; Getxon hilaren 12an; Berangon eta Erandion hilaren 13an»

Villamonte kultur etxea) "Baby boom" eta "Pida kiini" dokumentalak, eta "Every other weekend" eta "Tryout" film laburrak; Leioan hilaren 11n (20:00, KulturLeioa) "Senza fine" film luzea eta "Na Koncu Ulicy" film laburra, eta hilaren 12an "Gay... et après?" dokumentala; amaitzeko, Erandion hilaren 13an (20:00, Josu Murueta kulturgunea) "Cowboy" lan laburra eta "Campilo, si quiero" dokumentala eskainiko dituzte. ○

Erromokoen azken "okupazioa"

Okupando Rom@ taldeak agur kontzertua eskaini zuen urtarrilean, jaiotzen eta hazten ikusi duen Itzubbaltzeta gaztetxean



Azken kontzertuko irudia Itzubbaltzeta Gaztetxean

Itzubbaltzeta gaztetxearen lehen urteurrena ospatzeko 2005ean bertako hainbat militanteri eta musikariri abesti bat sortzea otu zitzaion. Gazte okupen artean, etxeko beroan jaio zen "Errekagane 1-5" kantua, eta ereindako hazitik osatu zen hasieran kantuaren izen bera zuen taldea; gerora lokalean lan eginenez, globala lortu jarreragaz bat egin asmoz-edo, egokiagotzat jo zuten izena aldatzea eta hala erne zen Okupando Rom@ taldea. Hiru urteko ibilbidean kontzertu andana eskaini ditu, baina landarea ureztatzeko indar nahi-

korik ez ei zuten, eta iragan urtarrilaren 17an eskaini zuen taldeak agur-kontzertua; jaiotzen eta ernetzen ikusi duen lurzoruan, Erromoko Itzubbaltzeta gaztetxean.

Laurak (biolina), Anek (baxua), Kakik (bateria), Natalayk (perkusioa eta ahotsa), Otxoak (gitarra), Gindik (ahotsa) eta Zuluk (gitarra) osatu dute taldea eta eurek batera Goros teknikariak zortzikotea. Zuluk azaldu legez, "azkenean kontua izan da ez genuela nabiko motibazio kanta barriak egiteko eta..." banatzea erabaki dute; bidean zehar eginda-

koen artean lotu dira, besteak beste, musika taldeentzako entsegu lokal bat okupatzea eta atontzea (beste batzuek batera); orain hile bi edo plazaratu zuten *Errekagane 1-5* diskoa. "Gaztetxe alboko areto bat okupatu genuen beste talde batzuek, autogestioaren bidetik jarnaituz eta beharrezkoa dena okupatuz, leku horiei bestelako alternatibarik ematen ez zaien bitartean; hala, inguruan zeuden talde hasiba-

«Okupando Rom@ amaitu bada ere... beste kontu batzuk ere sortuko dira»

rriei ere lekua eskaini diegu", dio Zuluk eta "zer zor diogun mugimenduari? Zor diogu ez bakarrik taldearen sorrera, pertsona legez beztea ere bai, baita jo dugun hamaika leku eta gaztetxetako ateak zabaltzea ere". Beti irabazismo bako musika egin dutela azaldu du Zuluk, diskotik ateratako dirua Erriberako "okupen" isunak ordaintzera bideratu zuten, eta azken kontzertuko Getxoko preso politikoaren senitartekoei eman diete. Agur emanaldia ez dute erraz ahaztuko "oso berezia izan zen, ederra, magikoa, nire bizitzako kontzertua... geugaz batera 9 taldek jo zuten, ipinitako helburua bete genuen, gaztetxea betetzea, gainezka egon zen! Denei eskerrak ematea genetzen zaigu, Okupando Rom@ amaitu bada ere, taldekideak musika egiteko gogoagaz gabiltza; beste kontu batzuk ere sortuko dira". ○


diskoak

La vida
Ainhoa Arteta
Universal Vale Music



Estilo barriak jorratzen ditu Ainhoa Arteta sopranoak *La vida* diskoan. Silvio Rodriguez abeslari kubatarraren abestiak eman dio izena. Izan ere, hainbat talde eta abeslaren kantuen bertsoak interpretatzen ditu. Besteak beste, Eric Clapton, The Beatles, Elvis Presley, Jacques Brel eta Pierre Boudazarrenak.

Zortziak bat!
Skatu
Musikherria



Skatu taldearen lehen diskoa argitaratu barri du Musikherriak. Iruñeko talde gaztea da eta punk, ska zein reggae doinuak nahastu dituzte 12 kantutan. Letrek esangura edukitzea ezinbestekoa da beraientzat, aldarrikapenez betetakoak batzuk eta dibertigarriagoak besteak; "baina guztiek daukate beraien zentzua".

Denboraren artaziak
Lisabö eta Inoren ero ni
Gor



Lisabö: Denboraren artaziak binilo single 45 R.P.M kaleratu zuten abenduan Lisabö eta Inoren ero ni taldeek. Ez da CD-single bat, binilo singlea, baizik; edizio mugatua eta zenbakitua da. Inoren ero ni taldearen "Disonantzia" eta bestetik, Lisabören "Denboraren artaziak" du izena diskoak. Aleak amaitu bitartean izango dute salgai.

etorri
eta
ikusii!

ORIXA
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

KOSKA
irratia 108 FM

www.koskairratia.com

[liburuak]

Aitorren kondaira euskaraz

Agosti Xahoren "Aitor: légende cantabre"
euskarara itzuli du Hector Iglesiasek

Iragan urteko urrian izan zen Joseph-Augustin Chahoren, *Agosti Xaho*, heriotzaren 150. urteurrena; gorazarre entzutetsu barik iragan zen urtemuga. Alabaina, hala-beharrak eraginda edota ahanzturaren iheslari zenbaitzuen ekimenez, oraintsu kitatu da, hein batean behintzat, harekiko zorra: "Aitor: légende cantabre" testu ezaguna euskaratu du Iker taldeko Hector Iglesiasek. Jatorrizko testua frantsesez plazaratu zuen Xahok 1945ean berak sortutako *L' Ariel* egunkarian (horren baitan plazaratu zuen euskara hutsezko lehenengo kazeta: *Uskal Herrico Gasetta*), eta oihartzun handia izan zuen *Aitorren kondairak*, "mitoak", "euskal-dunen jatorriaren alegia" azaltzen duenak.

**«Edizio eleanitza da,
frantses, gaztelera eta
euskarazko testuakaz»**

Urteen joanean hainbat hizkuntzataraz itzuli da, baina euskarara orain arte ez. "Aitor; *Kantabriar kondaina*" edizio eleanitz baten atala da. Asogirik argitaletxe armeniarrek argitaratu duen eta ohorezko euskaltzain eta Erevan unibertsitateko irakasle armeniar Vahan Sarkisianek bultzatutako edizio hori nagusiki ondorengoek osatzen dute: 1845ean agertutako testuaren hiru bertsoiek (frantsesez); XIX. mendean




Joseph-Augustin Xaho
(Atharratze, Zuberoa 1811-Baiona, Lapurdi 1858)

Arturo Campionen gaztelera itzulpenak (hobetua-osatua) eta Iglesiasek estreina euskal itzulpenak. Iglesiasek azaldu legez, "Aitor, euskal nazioaren kondairazko sortzailea"ren "mitoa" euskaratzeko lapurtera eta nafarrera euskalkiak aukeratu ditu.

Kazetari, historialari, filologo, batez ere idazle eta poeta, erromantiko; laiko, politikari-gai, ezkertiar, abertzale, erbesteratu... atharratza guregana gaurkotzeko bidea da edizio hori; Xaho ez baita "deuser izan ez dena". ○

Informazio gehiago:
zubitegia.armiarma.com
www.argia.com/argia-astekaria/2154

liburuak



Azken Bala
Hasier Larretxea
Point de Lunettes

Euskal gatazkari begira jarri zaio Hasier Larretxea nafarra "Azken Bala" poema bilduman. Euskaraz eta gaztelera argitaratu duen liburuan, bortizkeriaz betetako poemak aurkituko ditugu. Preso baten ama, borrokari uko egindako jendea... hainbat pertsonaien azalean jarri da.



Ekialdetik iritsi zen Enara
Xabier Etxaniz Rojo
Alberdaniak

Etxaniz Rojok bere bidea kontatuko digu, Txinan adoptatutako alabarengana eroango gaituen bidea, hain zuzen ere. Zergatik adopzioa, zein herrialde hautatu, interneteko foroetan kontsultatu, jendea ezagutu, Txinara joan, alaba ezagutu...

[kirola]

Andrazko arraunlarien txanpa

Eusko Tren Liga antolatu dute udan emakumezko 4 traineru selekziok lehiatzeko



Arkoteko nesken trainerua

Emakumezkoen lehenengo arraun liga abiatuko du udan Traineru Kluben Elkarteak (TKE-ACT), horretarako Eusko Jaurilaritzako Garraio eta Herri Lan Sailaren mendeko Eusko Trenbideak enpresa publikoaren babesia izango du. Hala, andrazkoen arraun ligak Eusko Tren Liga izena izango du eta uztaile-abuztua bitartean jokatuko dira norgehiagokak.

Eusko Tren Ligan lau selekzioak hartuko dute, ondorengoek hain zuzen: Bizkaikoak, Gipuzkoakoak, Galiziakoak eta Kantabriakoak. Lehiaketa zortzi estropadek osatuko dute, horietako bi Galizian egingo dira, beste bat Kantabrian egiteko asmoa dute antolatzaileek, eta gainontzekoak Euskal Herrian. Dagoeneko Getxoko eta Zarauzko udalerriek "euren urak" eskaini dituzte estropadaren bat hartzeko. Andrazkoen arraunketak gizonen San Miguel Ligakoak baino ordu erdi lehenago jokatu dira eta gizonenak ez bezala, ziaboga barreko estropadak izango dira. Saikapen postuaren arabera, lehenengotik azkenera hurrenez hurren, estropada bakoitzeko 4, 3,

2 eta puntu 1 egongo dira jokoan.

Bestalde, Eusko Trenek urtero 90.000 euro emango ditu liga aurrera erateko eta hiru urterako babesia sinatu du. Horren albotik, sariei dagokienez, antolatzaieek aurreratu dutenez, "trainera irabazleak gizonenak besteko diru-saria jasoko du". Hala, parte hartuko duten lau selekzioen artean 7.500 euro banatuko dituzte, horie-

**«Getxok "bere urak" eskaini
ditu Eusko Tren Ligako
estropadaren bat hartzeko»**

tatik 3.285 euro irabazlearentzat dira.

Liga honen sorrera Kontxako estropadaren ehun urte luzetan, pasa den urtean lehenengo aldiz jokatu zen emakumezkoen arraunketa historiko hartan datza. Dena dela, paraleloki emakumezkoen euskal liga ere jokatu dela ezin ahaztu; izan ere, Eusko Tren Ligan ez dutelako klubek parte hartzen, hainbat lurraldetako selekzioek baino. Ostera, bizkaitarren artean Uribe Kostako arraunlaririk ez faltatzea espero dugu. Hala bedi! Eutsi txanpari! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tel: 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Ekaitz Agirregoitia > biologoa, Koldo Mitxelena Sariaren irabazlea

“Sariok ez dute eragingo euskaraz egitea, protokoloa betetzeko sortu dituzte”



Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena Saria eskuratu du Ekaitz Agirregoitia leioztarrak

Ugalkortasunari buruzko tesia euskaraz idatzi eta aurkeztu zuen Ekaitz Agirregoitiak iaz. Oraintsu Koldo Mitxelena Saria irabazi du tesi horri esker, erakutsitako euskara maila eta euskarari egindako ekarpenagatik. Sariakaz kritiko bada ere, irabaztea pozik egoteko arrazoia dela uste du. Izan ere, Barakaldon eta Leioan hazi da, eta aitortu duenez, ahalegina egin behar izan du euskaraz garatzeko bere bizitza.

—Zer dira Koldo Mitxelena Sariak?

—EHUko Euskara Errektoreordetzak eta Euskaltzaindiak sortu dituzte sariok aurten euskarazko tesiak saritzeko, euskarari egiten dioten ekarpenagatik. Bost jakintza-arlotan sailkatu dituzte, osasun zientzietakoa eman didate niri. Euskaraz ez da normalean tesirik idazten, hori saritzeko dira sariak.

—Zer dela eta eman dizute?

—Ez dute asko baloratu gaia, gehiago begiratu diote euskararen mailari, txukuntasunari eta garbitasunari, arloan nobedadea izan badira erabilitako hitzak, eta zenbat hedatu den tesia. Aldizkarietan artikulatuak

idazten ditugu eta horrela hedatzen da tesia. Internet bidez hedatu dugu nirea, Elhuyarren eta Frantziako aldizkari batean argitaratu dituzte tesiari buruzko artikulak. Ugalkortasunaren gainekoa da, espermatzoideen mugikortasunean opioideek eta cannabinoideek duten eragina aztertu dut.

—Sariak nolabait euskarazko ikerketa bultzatzeko sortu dituztela aipatu duzu, helburua betetzen dute?

—Inondik inora. Saria erakargarria izan liteke; 2.000 euro eta zure lanaren aitortza kurrikulumerako gurean. Baina jendeak ez

du egingo tesia euskaraz saria dagoelako, askoz sakonagoa da kontua. Sari batek ez du eragingo hirugarren zikloa euskaraz egitea. Gainera, sariak orokorrean nahiko elitistak dira, eta euskararen kontua itxurakeria da; diru-partida bat daukate urtero errektoretzan eta gastatu behar dute. Beste era batean bultzatu beharko litzateke hizkuntza. Irakasleek eta ikasleek euskaraz egin beharko lukete beraien lana horretarako beharra dagoelako, bestela gure hizkuntza ez da sekula garatuko arlo teknikootan. Hizkuntza asko oso atzeratuta daude arlo hauetan; euskara da horietako bat, jendeak

«Graduondokorik ez dago euskaraz arloetan, ahalegin handia da tesia idaztea»

ez duelako euskaraz hitz egiten. Sari hauek ez dute eragingo jendeak euskaraz egitea, horretan ziur naiz. Protokoloa betetzeko sortu dituzte, uste dute “zerbait egin dut eta euskarari laguntzen diot”. Okerrrena da Koldo Mitxelena deitzea sariari, euskararen alde lan izugarria egin zuen eta bere lana gutxiesten dela uste dut. Sariok ondo leudeke, atzean estrategia bat balego jendea euskaraz idaztera eta ikastera bultzatzeko. Inork ez dizu esaten tesia euskaraz egiteko, norberaren gogoz egin ohi da, ingelesa edo gaztelera bultzatzen da. Graduondokorik ez dago euskaraz nire arloan, ahalegin handia da ondoren tesia euskaraz idaztea.

—Halere, pozik egoteko merezimendua izango da?

—Bai, azken batean baloratu dute euskara maila eta euskarari egindako ekarpena, eta ni bezalako pertsona batentzat, bizitza euskaraz garatzeko ahalegina egindakoa, pozik egoteko arrazoia da. Sariakaz ados egon edo ez, horrelako zerbait aitortzen dizutenean, pozik egoteko modukoa da. o

IRAUPEN eski ASTEBURUA

*Somporteko eski estazioan (Jaka)
*Martxoaren 6tik 8ra

Prezioa*: bazkideek eta berbalagunek 105€ | Ez bazkideek 135€

(*Autobusa, egonaldia (Oroel hotolean), bi gosari, larunbeteko afora, forfaitak, 2. ordoko ikastaroa euskaraz egunero, ekipa osoko alokairua eta aseguru).

Izen eman otsailaren 27ra arte, telefonoz: 619 935 541 / 94 491 43 57
zein posta elektronikoz: egizugetxo@yahoo.com | www.blogari.net/egizu

egizul EGZUGETXO EUSKALDUNERAKIA

uk
Boluntzarreta

adi lagun!

Otsailaren **9tik** aurrera pasatuko dizugu urteroko harpidetza kuota.

edozein argibidetarako deitu telefono honetara: 94 491 13 37

Josu Landeta > Muru mendia

“Neoliberalismoaren etxe-espekulazio basatiak, hango unibertsoa erausi zuen”



“Muruko landetan Musgoio genduen errege. Goiz goizetik hantxe ibiltzen jakun eskopeta eskuan txoriren bat noiz atrapako”

Hamasei edo hamazazpi urte dogu gehienok. Udako ehiza akaba jaku. Jaialdirik jaialdi neska politen bila ibili arren, piezarik ez dogu jaso. Hori bai, atxurak partide hartu doguz. Tabernariak behintzat pozik lotu dira gugaz. Nesken kontuan, laurogeita hiruko uda eskasa izan da.

Txorik atrapatuko denbora hasita, piezarik eskura ezin dogun honeek Muru mendiko landetan batu gara, batzuk euren txinberak eta eskopetak eskuetan, eta beste batzuk (neu barne) ehiztariak izan barik besteen ekintzei begira, edo lagunduten batzuetan. Eta halako batean..... hor

dator Musgoio eskopeta eskuan daroala, munizioz ederto kargatuta. Danok berari begira gagoz, harriduraz batzuk, miresmezez beste batzuk.

Goizean goizetik txori ehiza hasi da. Batzuetan zeozer jausten da, birigarro, txio-txu edo beste. Oilagorra atrapatuko abila izan behar da, gero. Gaurkoan, osterara, ez oilagorrik ez ezer; jaialdietako suerte berbera daroagu, antza. Azken errekurtsua: artatxoriak atrapatzea, baina horreek ezin dira jan. Orduan tiro-praktikak egin beharko. Malakateko hormaren kontra taula lodi bat imini dogu, eta txinberak eta eskopetak era-

biliaz hor gabiltz tiro eta tiro, hori bai, munizio gitxi, karua da-eta. Gaurkoan Musgoio txapeldun.

Muruko landetan Musgoio genduen errege. Goiz goizetik hantxe ibiltzen jakun eskopeta eskuan txoriren bat noiz atrapako. Handik urte batzuetara neoliberalismoaren etxe-espekulazio basatiak, hango unibertsoa erausi zuen. Gaur Muru mendirik ez dago. Halanda bere, batzuetan adi egoten naz aberats enpeinatu barrien adosatuen artean, eta halakoetan Musgoio eskopeta eskuan ikusi neike, txakur kakadun baratze barri horren ganetik pasaten. ○

Toponimoa > Muru

Murua, -a (Etxebizitza): Muru hitz arrunta da, 'horma' edo 'harresia' izendatzen duena. Kasu askotan bezala, antzinako aipuetan artikularekin agertu arren, gaur egun ez da horrela erabiltzen. Dokumentazioa: "...ypotecan ysenalan la cassa y caseria de murua y todas sus heredades demurua ala dha...". (1620, 1629, 1632). "...me obligo a depositar dhos maices en la Casa de Murua..." (1783). "...berau, baie yon ver dosu eskerretara, ba...Murú..." (2002an ahoz jasoa).

Muru (Estarta): Aurreko etxe-izena erabiliz izendatutako kalea.

Murumendi (Mendia): Karmeliten komentua dago bertan. Toponimo honek Muru etxe-izena eta mendi hitz arrunta biltzen ditu. Dokumentazioa: ...dusti da Muruko, Muru mendi, dusti isen da Muruko... (2002an ahoz jasoa).

Getxoko leku izenak liburutik ateratako informazioa

Okela Jatetxea

Betiko moduan, su motelean



Javier Madariaga Ruiz Gorlizko Okela Jatetxean

Lau hamarkadako historia idatzi du Gorlizko Okela Jatetxeak. Luis Javier Madariaga Ruizek zuzentzen du gaur egun, baina, bera baino lehen, aiton-amonak eta gurasoak egon ziren: “Amak asko laguntzen du onaindino ere”. Garaiaz batzuetan aldatuz joan da jatetxeko eskaintza; hala ere, sukaldatzeko modu tradizionalaren alde egiten dute: “Nik jatetxean ikasi dut dakidana. Betiko eran behar egiten dut; hala ere, noiz-behinka, plateri gauza barriak sartzen saiatzen naiz”. Alde batetik, plater konbinatuak eta hanburgesak dituzte: “Jendeak gauza arinak gura ditu gauetan”. Bestetik, menua daukate: “Indabak, paella, bakailaoa... Saltsak antzinako eran egiten ditugu, bi ordutan. Gaur egun, arineketan egiten da dena, bost minutuan egosi eta listo. Saltsa on

baten sekretua sutan luze edukitzea da”. Oso ezagunak dira Javier Madariagaren amak egiten dituen postreak: “Tostadak eta hostopilak ditugu egunero; jende asko hurbiltzen da gosaltzera, pastelen bila”.

Asteleheneetik domekara dago zabalik Okela; asteburuetan menu berezia daukate kartagaz batera. 2002an goitik behera barritu zuten lokala eta gaur egun 60 lagunentzako lekua duen garagardotegi itxurako jatetxea da. Urtean behin, Txarriboda antolatzen dute. Aurten urtarilaren 23an izan zen: “Orain dela lau urte obitua berrartzea erabaki genuen. Gorlizko jendeaz gain, Bilbokoa, Getxokoa eta inguruko herrietakoa hurbiltzen da. Aurten, Burgostik ekarri dugu txerria”. ○

Jose Antonio Agirre, GORLIZ
Tel.: 94 677 02 13

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

ARTAZA ETXEA
jateetxea
• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI -
GETXO

basalbobaserria@yahoo.com



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasorekin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



*Usategi parkea z/g,
Algorta*

*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Etxeko sukaldariak haserretu gura ez, eta jan-edan bapo egin zenuen gabonetan. Dietan ipini gura zenuela, baina badira aste batzuk oporrak amaitu zirela eta ahaztu duzula ematen du. Kendu egizu alperkeria gainetik!</p> <p>AITZURRA</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Kotxea saldu zizunagaz berba egin ondoren konturatu zara ziria sartu zizula, baina dagoeneko ez dauka atzera bueltarik. Burua hotz zer egin erabaki beharko duzu, baina ez zaituz maltzurra izan eta ez egin horrelakorik besteren bati.</p> <p>GARIA</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Dena azkenerako utzi eta harrapatu zaituzte azterketek, betiko legez. Liburutegiko nagusi bihurtuko zara asteotan, baina presiopean ikasten jakin badakizu. Ohi denez, gai batzuk gainditu eta besteak ez.</p> <p>META</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Urtarrileko aldapa amaitzen ari da, gailurrera iristen ari zara, animo! Zoritxarrez, otsailekoa daukazu atejoka, eta martxokoa... Lasai, zortzimilakoak egiten ohituta zaude.</p>	<p>OTSOA</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Lana utzi, opor hartu eta gelditu barik zabilza batera eta bestera. Lagunek zure erritmoa jarraitzeko nahikoa lan badaukate! Patxada hartu eta ikasten hasteko unea iritsi zaizu, nola gainditu bestela oposizioak?</p> <p>HOSTOA</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Gabonetan opor ikaragarriak egin zenituen, kaipiriña eta mojito artean, baina aspaldi amaitu dira zorion egun haiek. Ekarri burua lehengora eta zentratu zaituz, saltsa doinuakaz txosna mugikorra ematen duzu-eta!</p> <p>LASTOA</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Ziur zaude errua berea dela? Hala bada, emaiouzu aukera azaltzeko, baina horrela ez bada, zintzotasunez hitz egitea izango da onena. Ez zarete egongo urte osoa haserre, ezta?</p> <p>HAZIA</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Udazkenean jaioa, orduko haizea bezala zabilza, nora jo ez dakizula. Uneko kontua besterik ez da. Laster hartuko duzu betiko marxa, baina ahaleginen bat ere egin beharko duzu...</p>	<p>ADARRA</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Oporren ostean gogor ekin diozu lanari eta agian lasaitu eta atsedean hartu beharko zenuke egun batzuetan, merezi duzu-eta! Lagunakaz asteburu pasa ederra egin zenezake, edo azkenaldian egin duzun lagun berezi horregaz.</p> <p>EGUZKIA</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Zuk bai, ondo baino hobeto hasi duzu urtea. Lanpostu ona eta etxea. Zu bai zu zoriekoa! Ligatzea baino ez zaizu falta! Horretan ere ederki moldatzen zara, eta ziur asko badaukazu aferaren bat hortik...</p> <p>IRATZEA</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Bizikleta hura ekarri zizun Olentzerok eta pozik hartu zenuen, baina bazter batean daukazu, opariko lazoa kendu barik. Mailota erosi beharreko aitzakiak ez dituz balio, lantokia gertuegi daukazu, mailotik barik joan zaitzake.</p> <p>NEGUA</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Hasieran eutsi zenion, baina azkenean xahutu duzu soldata osoa beherapenetan, aurten merkealdi ederrak izan dira krisia gora eta behera. Egun nahikoa edukiko duzu erositako guztia janzteko?</p>
--	---	---

EUSKARA IRAKASLE IZATEKO OINARRIZKO IKASTAROA

NON: Santutxuko AEKn (Aita Pernet 9).
NOIZ: 2009ko otsailaren 12tik martxoaren 17ra, 09:30etatik 14:00etara
ORDU KOPURUA: 100 (presentziala+praktika+norberaren lana)
PREZIOA: 300 euro

INFORMAZIOA ETA INSKRIPZIOA:

AEK didaktika zerbitzua- Bizkaia
Txakurkale 1, 5. pisua
48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 95 12
E-posta: bizkaia@ae.org


Matrikula egiteko azken eguna: otsailaren 11. Ikastaroko partaideak matrikula egiten duten hurrenkeran onartuko dira. Gehienezko partaide kopurua 19koa da.



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK




Ezker eskuin

1. Antolatu. 2. Aski. Nasa, moila. 3. Emakume izena. Guraso arra. 4. Galdetzaile bat. Adorea, kemena. 5. Erabateko nahasmendua. 6. Elkartea. 7. Xumeak, umilak. Erdi, hitz elkarketan. 8. Bi. Apala. 9. Juzku. Pluralean, txori handi mota. 10. Gai itsaskorra. Mozkorturik, horditurik.

Goitik behera

1. Hitzez adierazi. Kainen anaia hura
2. Gizon izena. Tabakoa erretzeko tresna. 3. Donostiako auzoa. Alderantziz, gorotza. 4. ... gabe, eten gabe. Pilota handia. 5. Haize indartsuko ekaitza. 6. Usoaren ume. 7. Eskumutur. Zenbaki eromatarretan, 1000, 1 eta 500. 8. Ipar Euskal Herrian, gona. Dei eginez ari da. 9. Ugatz. Uhartean. 10. Atabala, kontsonanterik gabe. Mendiko atea.

Soluzioak



asmatu eta irabazi > **lagun birentzako bazkaria**



Nor da?

- Gipuzkoako babarrun ezagunen herrikoa
- Donostiako urrezko danborra izandakoa
- Mundu osoan ezaguna egin duen ahotsa du

> Aurrekoaren erantzuna: Mikel Laboa

> Irabazlea: **Iratxe Lopez Urkijo. Berango***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Argia

astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



+



Jolasak eta liburuak

www.argia.com

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean lagun birentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz



ANDONI INTXAURTIETAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

PLENTZIAKO TXIKITEROAK, 1973

Urte horretan edo aurreko urtean beharbada, lagun talde batek Pauli tabernan (oraindino dirau) erabaki zuen Santa eskean urtetea, eta batutako dirua Barrikako zahar egoitzari ematea. Kontuan hartu behar da, alde batetik egoitza honen egoera 1970eko hamarkadaren hasieran oso gogorra zela, ez zegoen erakundeen diru laguntzarik, pertsona pribatuen laguntzari esker mantentzen zen; bestetik egoitzan zeudenak plentziarrak eta gorlizarrak ziren. Nahiz eta urtero-urtero ekitaldi bakarreko abesbatza izan Plentziako txikiteroena, arlo musikalean ere eman du bere fruitua. Esan daiteke 1980ko hamarkadaren hasieran jaiotako Iraunkor abesbatzaren oinarria dela. Argazkian ditugu, Barrikako egoitzaren aurrean, lehen aldiz abesten urten zirenak 1973an Plentzia eta Gorliztik. Gaur egun, inguruko herri gehiagotan (Urduliz, Sopela, Barrika) abesten dute. Orduan bezala aurten ere joango dira (hilaren 22an seguru aski) bertara, dirua ematen eta Santa Ageda abesten. ○

Goitik hasita, ezkerretik eskuinera

1. **lerroa:** J.P. Landa, Juanito Iburgurengoitia (GB), Anton Intxaurtieta (GB), Beitia (GB), Felix Torrontegi (GB).
2. **lerroa:** Lasa, Teodoro Olivares (GB), Mentxakatorre (GB), Vicente Merino, Temple, Nicolas Fernandez, I. Arrola.
3. **lerroa:** C. Madariaga (GB), Luis Oliva(GB), Acha (GB), Fullaondo.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

NAROA ITURRI > Kazetaria

“Euskal Herriko hezkuntzan aldatu beharreko gauza asko dago”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Irekia eta alaia.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

La vida de Bryan. Izugarri gustatzen zait eta oso ondo pasako nuke, surrealismoarekin jolasten duelako.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Nire amona. Orain dela gutxi jakin dut gerra garaian errefuxiatu ibili zela, eta dena alde batera utzi behar izan zuela anai-arrebak aurrera ateratzeko.

Orain zarena izango ez bazina zertan jardun nahi zenuke?

Hezkuntzan; Euskal Herrian hezkuntza maila asko aldatu beharra dagoela iruditzen zait, eta horretan parte hartu nahi nuke.

Hautzaroko oroitzapen bat.

Egun guztia kalean ematea, lagunekin jolasean.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Egin ditudan bidaiak errepikatuko nituzke; Hego Amerikan edozein lekutara bueltako nintzateke.

Zein da gehien gorroto duzun topikoa?

30 urtetik gora “arroza pasako” zaizula entzutea.

Zure ametssetako bat?

Munduan zehar bidaiatzea.

Zure lanbidearen alderik politena eta txarrena?

Politena, egunero gauza berri bat ikasten dela; txarrena, ordu asko sartu behar direla.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Maite dudak jendea gabe.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Hernani; norberaren herria oso berezia izaten da. ○

LABURREAN— Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) Kazetaritza ikasi zuen Naroa Iturri Lizarribarrek (Hernani, 1976). Amaitutakoan, bi urtez egon zen praktiketan Euskal Irrati Telebistan (EITB). Estepan Aldamizekin izan zuen bere lehenengo kazetari esperientzia, *Bakarrik* saioan. Ondoren, *Ikusgela* eta *Sut & Blai* gazteentzako saioetan parte hartu zuen, ETB1en. Orain gutxi arte, Andoni Aizpuruk aurkeztutako *Horrelakoa da bizitza* informazio eta kultura tartean ikusi ahal izan dugu. Gaur egun, sortu berri den eta Bilbo Handian, ezker aldean eta Uribe Kostan ikus daitekeen *Hamaika Bilbo* euskara hutsezko telebistan dago beharrean, erredakzio buru lanetan.

Nik ikastaro berrian hartuko dut parte.*

*yo me apunto al nuevo curso.

AISA

Nuevo curso de acogida lingüística para nuevos y nuevas getxotarras



Getxo
UDALA - AYUNTAMIENTO

EUSKARA BIZI

INFORMAZIOA

UDAL EUSKALTEGIA, TEL.: 94 464 62 99 (ROND) LAGARTEA-REX EUSKALTEGIA, TEL.: 94 430 47 34 (ALCOETX) J. A. AURRE EUSKALTEGIA, TEL.: 94 460 66 71 (ALCOETX)

HADE

ELIJO IZARRITZA GOBERNADORE VASCO

BIA BIZI

Euskarazko irakaskuntzaren alde

2 eta 3 urteko umeak matrikulatzeko kanpaina
(lotsailaren 2tik 13ra)

ama, aita:

guk ere

euskaraz

ikasi nahi dugu!!



Mikel, 6 urte, Romo

Daniela, 5 urte, Buenos Aires



EUSKARA BIZI



Getxo
UDALA - AYUNTAMIENTO

Euskara zerbitzu

ALKARBIDE

